

A large group of children, mostly of Hispanic descent, are participating in a parade. They are wearing white long-sleeved shirts with red scarves and red sashes. Some are holding white boxes with blue designs. The children are smiling and looking towards the camera. The background is a blurred street scene with other people and buildings.

hiruka

193. zenbakia
2023ko martxoa

Inauteriak Uribe Kostan

Kolorez betetako jaia



MARTXOAK 2 MARZO

Auditorium // 20:30 // 3 €

LAS QUE LIMPIAN

A Panadaria y CDN (Galizia)



© Leticia T. Blanco



MARTXOAK 10 MARZO

Auditorium // 20:30 // 12 €

PAÛRA

Cia. Lucas Escobedo (Valentzia)



© Gaby Merz



MARTXOAK 19 MARZO

Auditorium // 18:00 // 6 €

ESNA

Marie de Jongh eta Doos Colectivo (Euskadi)



MARTXOAK 24 MARZO

Auditorium // 20:30 // 12 €

EL NADADOR DE AGUAS ABIERTAS

K Producciones (Euskadi)



© Sergio Parra



MARTXOAK 31 MARZO

Auditorium // 20:30 // 10 €

MOOR KRAD

Ertza (Euskadi)



Leioa
KULTURA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



S4RE4
EUSKADIKO
ANTZOKI SAREA
RED VASCA
DE TEATROS

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Galeako gotorlekua, berreskuratze bidean
- 10 Herriz herri
- 18 Hirudika: Inauteriak Uribe Kostan
- 24 Berbetan: Naomi Hasson, erizaina eta Getxo Zurekin egitasmoaren arduraduna
- 28 Berezia: aisialdia
- 32 Uribe Kostako agenda
- 33 Mundukatuak
- 34 Lehen/orain eta Uribitakora
- 36 Eider Eibar, ilustratzailea
- 37 Iñigo Astiz, poeta eta kazetaria
- 38 Zinez diot eta Irakurrian
- 39 Usategi
- 40 Aitor Arri, errugbi inklusiboko entrenatzailea
- 41 Saioa Ortega, surfeko Europako txapelduna
- 42 Iritziak eta Horoskopoa
- 43 Pil-pilean
- 44 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 46 Faceguk
- 47 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Nahia Martinez Gondra, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Algortako Bilgune Feminista, Sopolako Neska*
Gazteak, Xabier Buenetxea, Iñigo Esteban
Lezkano, Koldo Tellitu, Joseba Santxo, Andra
Barriak eta Sorginen Alabak.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Bizitza, gatazkak, iraultza

ALGORTAKO BILGUNE FEMINISTA

Otsailean, soldata-arrakalaz; orain, martxoan, Emakumeen Egunaz, jo eta su. Patriarkatua gure mezuez jabetzen da, lotsagabeki, hau guztia errotik aldatzeko inolako neurririk proposatzetik urrun. Adibidez, 2024ko martxoaren 8a jai egun izendatzea, Mendia anderea, ez da kapitala eta patriarkatua zuritzetik harago helduko.

Mugimendu feminista bide luzea egiten ari da zaintzei balioa aitortu, emakumeen ordainik gabeko bizitza osoko lanaz ohartu, emakume pentsionisten egoera plazaratu, sektore feminizatu eta prekarioen lanarengatik soldata eta baldintza duinak eskatzeko, eta abar. Guk, Algortan, otsailean aniztasun funtzionaleko pertsonak zaintzen, integrazio sozialean zein adineko edo mendekotasunik dutenentzako egoitzetan ari diren emakumeen lekukotzak jaso ditugu; martxoan etxeko langileen alorraz aritzeko asmoa dugu. Horrela jarraitzeko erabakia hartu dugu egunez egun, hilez hil, urtez urte, lortu arte. Askotariko zapalkuntzez jabetuz, apaltasunetik duintasunera, herri hau denontzat izan dadin, prest ditugu gorputzak, arnasa, izerdia, odola, garuna, bihotza.

Ez gaude jai hartzeko; mundu eta gatazka horiek guztiak erdigunera ekarri eta iraultzera goaz.



Elkar zaintzea erradikala delako

SOPELAKO NESKA* GAZTEAK

Heldu da berriro martxoak 8a. Egutegian morez markatutako eguna denontzat, baina aldatuko da ezer martxoak 8aren ondoren? Etxeko lanek eta zaintza lanek neska* gazteon gain jarraituko dute, adibidez. Sistemak aitortutako lanak ez diren arren, ezinbestekoak baitira gu denon bizitzak sostengatzeko.

Neska* gazteok gara gure inguruneetan ongizatea bermatzen dugunak, gizonen ardurarik hartzen ez duten bitartean. Gu gara erasoan aurrean antolatzen garenak, protokoloak sortzen ditugunak, gizonen erasotzen jarraitzen gaituzten bitartean. Neska* gazteok gaude lan prekarioenetan, kontraturik gabe askotan: haur txikien zaintzan edo klase partikularrak ematen, besteak beste.

Finean, geuk daukagu ongizatea bermatzeko ardura. Hori egin beharko lukeen sistemak tresnarik eskaini ez eta are gehiago zapaltzen gaituen bitartean. Horregatik diogu elkar zaintzea autodefentsa feminista dela; komunitatea eta kolektiboa erdigunean jartzea bezala. Gure bizitzak erdigunera ekartzea apustu erradikala delako sistema osoaren logika inpugnatzeko. Inposatutako sistemari erresistentzia egiten jarraituko dugu, erasoan aurrean erantzuten, beti kolektiboan.

Sistema honetan elkar zaintza erradikala delako, gora autodefentsa feminista!



Puntua eta kontrapuntua **Galeako gotorlerkua berreskuratuko dute**

Zaharrek berri

*Galean aspaldian
bazan ondo entzuna,
gotorleku zaharreko
kañoi oiartzuna.
Galdera sortu jata
zeuri joatzuna:
iraganean gotortuz
gaurko eginkizuna,
eraikitzen al dogu
gure etorkizuna?*

**AITOR
ESTEBAN
ETXEBARRIA**
Itzulbatzeta

*Lehen zaharra zen hura
orain nobedade,
gotorlekua berriz
dugu parez pare.
Kanoi hotsak gogor ta
itsasoa bare...
Etorkizuna eraiki
bai baina hala (e)re,
Aitor, nondik gatozen
inoiz ahaztu gabe.*

**INAZIO
VIDAL
GURRUTXAGA**
Leioa



Gabriela Frances Zubillaga Lemoizko baserritarra eta Biologian doktorea

«Nire seme-alabak baserri batean hezi gura nituen, autosufizientziaz baliatuz»

Nekazaritzan oinarritzen da Gabriela Frances Zubillagaren bizi-proiektua: Lemoizko baserritarra izateaz gain, Biologian doktorea ere bada.

TESTUA: NAHIA MARTINEZ GONDRA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Bilbon jaio eta hazitakoa, Francesek ez zuen bere familian nekazaritzako erreferenterik eduki; hala ere, argi zeukan bere jomuga zela antzinako baserrietan bezala bizitzea: «Nire seme-alabak baserri batean hezi gura nituen, autosufizientziaz baliatuz». Uda-ro, Sopolako ortuetara eta behi-kortetara laguntzera joaten zen, eta, horregatik, betidanik izan du harreman estua nekazaritza-munduagaz.

Horrez gain, Biologia ikasi zuen Alemanian, eta, han, nekazaritza ekologikoaren berri izan zuen. Beranduago, Euskal Herrira bueltatu, Biologiako doktoretza hasi eta bere alaba jaio ostean erabaki zuen nekazaritzaren munduan profesionalki murgildu gura zuela.

Baserritarren egunerokotasuna «aldakorra» dela baieztatu du Francesek: «Neguan, behiak pasatzen dut denbora gehiena, belar gutxi dagoelako eta jaten eman behar diedalako. Aldiz, udaberrian, ortuan ibiltzen naiz». Gainera, hainbat oztopori aurre egin behar dio baserritarrek, besteak beste, lurraren espekulazioari: «Erronkarik handiena abeltzaintzarako edota ortugintzarako lur on bat edukitzea da, izan ere, lurzorua oso garesti dago. Horregatik, balio handiko lur agroekologikoak babestu behar ditugu, edota lurretarako sarbide publikoak antolatu. Udal-mailan, horren falta dugu».

Bestalde, duela zazpi urtetatik, Plentziako merkatuan bere baserriko produktuak saltzen ditu Francesek. Daborduko soilik udan salmentak egiten dituen arren, bueltatzen den bakoitzean bezeroen harrera oso ona dela dio, «konfiantzazko harremanak» eraiki dituelako.

Baserritarra izateaz gain, Frances Lemoizko zinegotzia ere bada, eta ardura «handia» dela baieztatu du. Hala ere, ez duenez ordutegi finkorik, bere zeregin guztiak betetzeko, nolabaiteko erraztasuna duela aitortzen du.



**Galeako
gotorlekua,
berreskuratze
bidean**



Britainiarren erasoetatik babesteko asmoz eraiki zuen Bizkaiko jaurerriak Galeako gotorlekua, 1743an. Ordutik, hainbat gerra bizi izan ditu, baina tokiko kanoiek inoiz ez dute tirorik egin. Hala, erabilera militarri zibila esleitu zioten, eta Bizkaiko lehenengo itsasargia izan zen. Askotarikoak bizi izan ditu gotorlekuak, eta, orain, hura berreskuratzeari ekingo diote.

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO**

ARGAZKIAK: **HODEI TORRES eta GETXOKO LIBURUTEGIAK** ►

Inguruko eraikin gutxi ikusi dute Galeako gotorlekuak adina. Bere izena daraman lurmuturrean, Abrako badiara begira, 280 urte eman ditu tokiko itsasoko joan-etorriak zelatatzen. Ia hiru mendeotan, askotarikoak bizi izan ditu: gerrak, suntsiketak, birmoldatzeak eta abandonuak. Azkena, 1973an, bi hamarkadatan zehar ostalaritza-gune bizi-bizi bat hartu ondoren, behin betiko atek itxi eta naturak berea egin duen arte. Galeako pasealekutik igarotzen diren auzokideek eta bisitariak bertan topatzen dute euren ibilaldietan kareharri eta hareharritzko eraikin puska hori, bere lasaitasunean, iraganari begira, aspaldiko distirara itzultzeko esperantzaz.

Tokiko ondarrerik ikusgarrienetakoa da Galeako gotorlekua edo Printzearen gaztelua izenagaz ere ezaguna dena. Bizkaian geratzen den XVIII. mendeko eraikuntza militarren adibiderik onena da, eta hori berreskuratzeari ekingo dio laster Getxoko Udalak, Punta Begoña Fundazioaren eskutik. «Uneoan, eraikina berreskuratzeke eta balioesteko plan zuzentzailearen oinarriak ezartzen ari gara», zehaztu du Maria Peraitak, erakundeko zuzendariak. Dioenez, Begoñako galeriak berreskuratzeke prozesuan ikasitakoan oinarrituta abiatuko dute prozesua, «ekiteko modu hori benetan funtzionatzen duelako; ahalbidetzen duelako ondarea berreskuratzea eta, aldi berean, bizitzaz betetzea, herria izan dadin horretaz gozatzen duena». Ildo horretan, azpimarratu du hori dela euren helburua: ondarea berreskuratzeke inbertsioak herriari bueltan ematea, «publikoa delako, denona. Mota honetako prozesuetan ezin da gune bat fosilizatu; ezin da itxita gelditu».

Peraitaren arabera, Galeako gotorlekua herriarekiko identitate-osagai oso indartsua duen eraikina da: «Berau eraiki zutenetik hasita, oso lotura estua du Getxogaz, baita getxoz-tarrakaz ere». Azpiegitura finkoa eraiki aurretik, bertan, Galean, Abrako badia kontrolatzeko, Portugalete eta Bilbora zihoazen itsasontzi komertzialen joan-etorriak zelatatzeke

eta baleak ehizatzeo begiztatze-puntu estrategikoa zen. Hala, XVI. mendearen akabuan, talaia bat ezarri zuten hor, hala ere, datu historikoek irudikatzen dutenez, badirudi Erdi Aroan daborduko kokapen hori erabiltzen zela unean uneko zaintza-lanak egiteko. «Inguruetako garapenaren lekuko izan da puntu hau», nabarmendu du Peraitak.

Garai Modernoan, aldiz, inguruko hiribilduak kanpotik etor zitezkeen erasoetatik babesteko asmoz, XVII. mendean gotorleku militarak eraikitzen hasi ziren badiako alde bietan; gurean, Galeakoaren aurretik, honakoak egin zituzten: Algortako Portu Zaharrean, zaharreana; Usategiko San Inazioko lurmuturrean, garrantzitsuena; eta Begoña lurmuturrean, XVIII. mende hasierakoa. Galeakoaren ondoren ere, beste bat eraiki zuten osagarri gisa Arrigunagan, gaur egun horren aztarnak ere ikus daitezkeenak, XVIII. mendearen amaierakoak.

Horietatik eta Bizkaian geratzen diren guztietatik, garai hartako eraikuntza militarren adibiderik onena eta hobeto kontserbatuena dugu Galeako gotorlekua. Britainiarren balizko eraso batetik babesteko asmoz, Espainiako errege-erreginek Bizkaiko jaurreiriari eskatu zioten daborduko existitzen zen defentsa-sistema hobetzeko. Hala, Jaime Sycre ingeniariaren zuzendaritzapean, tokiko eta inguruko herrietako 600 lagunek Galeako lurmuturrean gotorlekuak eraiki zituzten 1743an, gaur egun ikus daitekeena eta daborduko desagertuta dagoen txikiago bat iparralderago. «Zeregin horretan parte hartu zuten auzokideen izen-abizenak ditugu, horren zerrenda gaur egunerara heldu da-eta», azaldu du Peraitak.

Presaka eraiki zituzten biak, britainiarren erasoetatik babesteko; hala ere, Ondorengotza Gerra amaitu eta gotorlekuak ez ziren erabili. Hala, ondorengo urteetan horiek mantentzeari eta birmoldatzeari ekin zioten, «horren arin egin zituztenez, gauza batzuk hobetu behar



«Ezagutzen dena bakarrik baloratzen da, eta soilik babesten da baloratzen dena. Horregatik, ondarea balioan jartzeko beharra dugu»

MARIA PERAITA
PUNTA BEGOÑA FUNDAZIOKO
ZUZENDARIA

Ondarea

«Ondarea da ezberdintzen gaituena, gu egiten gaituena. Gordetako ondare horregatik ez balitz, herri guztiak berdinak izango lirateke»

Balioan jarri


«Ondareak nondik gatozen kontatzen digu, zein izan den gure eboluzioa eta kultura. Beraz, horretaz jabetu behar gara, eta hori mantendu. Denon ardura da»



Gaur egun ikus dez

zituzten». Hala, XVIII. mendeko bigarren erdialdean askotariko erreformak bizi izan zituen Galeako gotorlekuak, tartean, itsasargi bat eraiki 1782an, Donostiako Igeldokoaren ereduari jarraituta. Bizkaiko lehenengo itsasargia izan zen hura, eta bigarrena Euskal Herrian. Garaiko farozaina Bilbo hiribilduagaz komunikatzen zen banderen sistema korapilatsu baten bidez. Gaur egun ez dago azpiegitura horren arrastorik, baina ikerketa arkeologikoen baiezta dute gotorlekuaren barruan zegoela eta lauangeluarra zela, besteak beste.

XIX. mendean, aldiz, gotorlekua garaiko gatazka-militar askotako parte izan zen, to-



XVI. mendea

Abrako badian zelatatzen, arrantzarako eta bale-ehizarako talaia gisa erabiltzen zen gune hori. Hala, lehenengo datuek baieztatzen dute Galeako inguru horretan behin-behineko talaia bat egokitu zutela.



1740

Bizkaiko Jaurreiriak Jaime Sycre ingeniariari agindu zion gotorlekua eraikitzea, kostaldearen babesa indartzeko neurri gisa, inguruan zebilen eskua britainiar garrantzitsu baten mehatxuaren aurrean.



1742

Getxoko eta inguruko beste herri batzuetako 600 pertsonen parte hartu zuten gotorlekua eraikitze lanetan. Horien izenak batzen dituen zerrenda gordeta dago gaur egun ere.



1782

Erabilera militarri zibila ere gehitu zitzaion gotorlekuari, eta Bizkaiko lehenengo itsasargia eraiki zuten bertan, ia 17 metroko altuera izan zuena.



akeguna gotorlekuan eraikitako bigarren itsasargia da, 1852koa.

Inbertsioaren itzulera

«Ikusezina dirudien arren, askotan, ondarea berreskuratzeko inbertsioak bueltan datoz; tokiko ekonomia hauspotzen da zuzenean edo zeharka»

Berreskuratzea

«Prozesua abiatu aurretik hausnartu beharra dago zer eta nola egin behar diren lanak. Une horretan gaude, eta horren arabera erabakiko dugu zer pauso eman»

Difusioa

«Ondarea denona den heinean, behar-beharrezkoa da hori ezagutaraztea, babestea eta etorkizunera begira mantentzea»

kiko kokapen estrategikoagatik, bertako kanoiak eta babesak defentsarako zein erasorako erabili ez zituzten arren. «Gerra-fronteak ez ziren hona ailegatu, baina behin plazak hartuta, ulertuta lekua estrategikoa zela, armadek gotorlekua suntsitu zuten behin baino gehiagotan, 1812an eta 1836an, hain zuzen», azaldu du Punta Begoña Fundazioko zuzendariak.

Behin bere izaera militarra alboratuta, azpiegiturak bizirik jarraitu zuen ingurua zela-tatzeko zuen ahalmenagatik. Hala, 1852an, lehenengo dorrea baztertuta zegoela, bigarren itsasargi bat eraiki zuten, gaur egun ikus dezakeguna, baita farozainaren eta haren fami-

liaren etxea izango zena ere urte batzuk geroago. Denborak aurrera egin ahala, baina, hori ere erabilerarik gabe geratzen hasi zen, ez zuelako indar edo ahalmen askorik: «Industrializazioa hasi zenean, ingurua urbanizatzen eta fabrikak eraikitzen hasi zirenean, azken horien eta labe garaien argiak eta itsasargiaren distirak nahasten ziren, eta, ondorioz, azpiegitura honen erabilerak zentzua izateari utzi zion». Hala, 1905ean, erabiltzeari utzi zioten. Lau hamarkada eman zituen utzita, 1947ean Espainiako Gobernuak Getxoko Udalari laga zion arte, baldintza baten truke: aisialdirako erabiltzea. Hala, obra txiki batzuk egin ondoren, ostalaritza-gune bat sortu zuten bertan, 1950ean, eta hala jarraitu zuen 1973era arte, behin betiko ateak itxi zituen arte.

Ordutik, gunea biziberritzeko hainbat saiakera egin dituzte, baina guztiek porrot egin dute. Orain, baina, Punta Begoña Fundazioak horri erabilerari berri bat emateko saiakera egingo du. «Prozesu zaila izango da, Begoñako galerietan gertatu den bezala. Ondarea bakarra da, eta egindako guztiak eragina izango du horretan. Hala, gure helburua da berreskuratze-lanak sostengarritasun batetik abiatzea, tokiko balioak errespetatuta eta azpiegituraren barruan zentzua izan dezan».

Peraitak oraindino ezin du zehaztu noiz ekingo dioten lanari, baina aurreratu du interbentzio batzuk «laster» abiatuko dituztela. Hala ere, argi du ondarea herriarena dela, eta auzokideek horren parte izan behar dutela. Kontuak horrela, uste du garrantzitsua dela tokikoek prozesu horretan parte hartzea, eta horretarako bisitak ahalbidetzea aukera ona dela, «baina ikusiko dugu zelan egin: galerietan bezala, obrak egin ahala; ala Gasteizko katedralean bezala, lanak aurreratu ondoren. Zehazteke dago hori oraindino, hausnarketa sakona egin beharra dago, eta horren arabera erabakiko ditugu datak». ◀



1812 eta 1836

Gotorlekua eta haren kanoi-zuloak inoiz erabili ez zituzten arren, soldadu britainiarrek birritan suntsitu zuten, 1812an lehena, eta 1836an bigarrena, Legio Britainiarra liberalak laguntzera joan zenean.




1852-1905

Gaur egun zutik mantentzen den itsasargi-dorreak zaharra ordezkatu eta haren ondoan eraikin berria egin zuten, farozaina eta haren familia hartzeko, eta oraindino zutik diraute. Itsasargia martxan egon zen 1905era arte.



1947-1973

Getxoko Udalak eraikinen jabetza lortuta 1947ean, horiek birgaitu eta ostalaritza gune bat zabaldu zuen 1950ean, 1973era arte zabalik mantendu zena.



Gaur egun

Galeako gotorlekuak hainbat eraberritze bizi izan ditu urteotan; azkena, itsasargi-dorrearen konponketa 2013an. Orain, Punta Begoña Fundazioak azpiegitura osoa birgaitzeko lanak abiatuko ditu.

Getxo HAPOn eragina Trinitarioen elizaren inguruetan

Eztabaida piztu da Trinitarioetako lurzoru urbanizatuaren harira

Algortako trinitarioak Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) kontrako sinadura-bilketa egiten ari dira Algortako Trinitarioen elizan. Izan ere, Trinitarioetako lurzoru urbanizatuari lotutako jarduketak eremuak murritztea aurreikusten ditu, eta, ondorioz, deitoratu dute Argia Fundazioak ezingo duela gaixoakaz egiten duen lanagaz jarraitu. Benigno Zaballak adierazi duenez, sinadura-bilketa honegaz lortu gura dute herriak jakitea Udalak es-

«Argi dagoena da eurek -Udala- nahi dutena egingo dutela: etxeak egin, kobratu eta hor konpon bestean iritzia»

BENIGNO ZABALLA
ALGORTAKO TRINITARIOA

kuartean zer duen haien elizari dagokionez: «Parrokiako eta Argia Fundazioako eremuko lekuetan hainbat etxe egin nahi dituzte, eta zaintzen ditugun gaixoak San Martin eskolara lekualdatu. Gure ikuspuntutik hori onartezina da, eta horregatik gaude borrokan». Bere aldetik, gobernu-taldeak ekintza hori definitzen duten baldintzak azaldu eta argitu du Trinitarioetako hirigintza-jarduketa 2001. urteko HAPOn ere bazegoela, eta bertan aurreikusi zela hori dena. ◀

Getxo Musikagaz bat

Getxoko Nazioarteko 46. Jazz jaialdia bueltan da, lehiaketa eta guzti

Final handia ekainaren 28tik uztailaren 1era izango da Muxikebarri Antzokian, eta, bertan, Alemania, Frantzia, Polonia eta Suitzako taldeak arituko dira 21:00etan, saio nagusien aurretik. Ekainaren 28an, Vincent Meissner Trio taldeak irekiko du lehiaketa, eta hurrengo egunean, ekainaren 29an, Victor Carrascosa Quartete laukotearen txanda izango da, Victor Carrascosa Bartzelonako tronpeta-jotzaile gazteak gidatuta. Hirugarren egunean, Giulio Ottaneli Quartet arituko da, Parisko Kontserbatorio Nazionalean sortutako taldea. Bukatzeko, Jarecki Jazz Octetek amaiera emango dio azken faseari, uztailaren 1ean. ◀



Zuhaitz landaketa Azkorrrin

Adi Hapo plataformak, Sukar Horia talde ekologistak eta Otxantegi Herri Lurra ekimenak deituta, 50 bat lagun bildu ziren martxoaren 5ean, domekan, Azkorrrin, tokiko zuhaitzak landatzeko. Horrez gainera, beste basogintza-eredu baten aldeko apustua «ezinbestekoa» dela eta gune naturalak babesteko hirigintza-eredu bat aldarrikatu zuten. ELKARTEEK UTZITAKOA

ERDIGUNEAN ZU

SANIKOLAS.EUS
Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

Erando Kutsadura

Erandiogoikoko airea «normala» dela dio Eusko Jaurlaritzak

Goikolanda Ikastolan urtebetez aire-neurgailuak batutako emaitzak legezko parametroen barruan daudela adierazi du, baina elkarteak ez daude baieztapen horregaz ados.



Kromatografoa 2021eko urrian jarri zuten jolastokian, Udalak hala eskatuta.

Otsailaren 24an, Amaia Barredo Ingurumenaren Iraunkortasuneko sailburordeak urtebetez Goikolanda Ikastolako airea neurtu duen kromatografoaren emaitzak azaldu zizkieten Erandioko alderdi politikoei eta kutsadura salatu duten elkartei. Sailburuordearen arabera, eremu horretako airearen kalitatea «normala» da, eta legezko parametroen barruan dago, eta «ezarritako lege-maila aise betetzen dute».

Herri Bideak Kate Barik eta Herriko Auzokoa Elkarteak gogor kritikatu dituzte Jaurlaritzak igorritako emaitzak, eta «iruzurra» direla salatu dute, batz bestekoak bakarrik islatzen dituztelako eta ez jario handiak ezta hainbat faktore kutsagarri ere. Halaber, gaitzetsi dute, legezko parametroetan egoteak ez duela bermatzen osasunerako kaltegarriak ez izatea: «Ez dute adierazten ez gaudela OMEk gomendatzen dituen balioen barruan». ◀

Erando Cables y Alambres

Langileek kobratuko dutela bermatzeko hitzarmena sinatu dute

Erandioko Udalak eta Cables y Alambres lantegi zaharreko konkurtso administrazioak hitzarmena sinatu berri dutela iragarri dute. Horren bitartez bi mugarri ezarri dituzte parteek: batetik, 120 langile ohi baino gehiagok dagokien kalte-ordaina kobratzea bermatuko dute; eta, bestetik, Udalak lantegi zaharreko orubean egin gura duen hirigintza-proiektuan beste aurre-erapauso bat emango dute.

Udaleko iturriek azpimarratu dutenez, langileen interesei erantzun zuzenaren akordioa lortzea «marra gorri» bat izan da negoziazioetan, eta, behin hori finkatuta, aurrera jarraitu dute akordioagaz. Horrela, eta mugarriak bete ahala, konkurtsoaren likidazioan langile guztientzat egiteke dauden gainontzeko ordainketak osatzen joango direla iragarri dute.

Halaber, hitzarmenak orubean egin gura duten hirigintza-proiektuko hainbat zehaztapen ere ezartzen ditu: hirigintza-berroneratzeko egitasmoa; oso kutsatuta dauden lurzoruen ingurumen-birgaitzea; 1.000 apartokaleku inguru eraikitzea; zuzkidura publikoak; 356 etxebizitza, horietatik % 40 babes publikokoak; jarduera ekonomikoen hirugarren sektoreko erabilerarako 7.200 metro koadro bermatzea; plaza handi bi sortzea edota udal-ekipamenduen hobekuntza, bereziki asistentziakoak.

Lantegi zaharra eta aldamenean dauden 30 etxebizitza inguru 2024ean eraistea aurreikusi dute. Ezer eraikitzen hasi aurretik, kutsatuta dagoen orubea berreskuratzeko berderatzi milioi euro inguruko kostua izango duela ere iragarri du Udalak. ◀



BETIKO
IKASTOLA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84, (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



Naturaren behatokitik

XABIER BUENETXEA Biologoa

Bolueko putzuak berroneratzeko lanak 2022-23

Duela gutxi hainbat ekintza abiatu dituzte Bolueko hezegunean, hala nola landaredia soiltzea, zuhaitzak eta zuhaixkak moztea eta makina astunak ohea zulatzen sartzea. Gunea gaztetzeko beharrak hasi dituzte. Gaur egun, Bolueko hezeguneak 10 hektarea inguru hartzen ditu, Gobela ibaiak eta Bolue errekek bat egiten duten tokian. Hedadura hori urtegi zaharrarena da, baina, lehen, hezeguneak Fadurako ibarra hartzen zuen, Gobelaren uholde-eremuan, Berango eta Lamiako artean. Espekulazioak eta presio urbanistikoak eremua murrizten joan dira, gaur egungoa gelditu arte.

Hegaztientzako birika eta aisialdirako leku aparta izateaz gain, funtsezko eremua da uholde-habitata behar duten fauna- eta flora-espezie askorentzat, bizirik irauteko ur geza iraunkorra behar baitute. Espezie horietako asko desagertu egingo liriateke hezegunerik gabe.

Bolueko hezegunea desagerrarazteko mehatxu nagusiek jatorri antropikoa dute: kutsadura, lehorteza eta prozesu natural batzuk ere, hala nola kolmatazioa, zeinak baso- eta hirigintza-kudeaketa txarrean du jatorria. Kolmatazioan ibaiak garraiatzen dituen gehiegizko sedimentu horiek hondoa betetzen dute, lurzoru aberatsa sortuz. Horren eraginez, landare nitrofiloak agertzen hasten dira eta egur-landareek kolonizatzen dute, ibaiertzeko basoa sortu arte. Habitat hori interesgarria da, baina jada ez da hezegune bat, eta urarekiko mendekotasun handia duten espezieak desagertu egiten dira. Prozesua geldiarazteko, hezegunea gaztetzeko eta aurreko egoerara eramatea beste erremediorik ez da gelditzen. Horrek esan nahi du zuhaitzak moztu, belar-sastrakak eta sedimentuak kendu behar direla, gaur egun hezegunearen 1. urmalean egiten ari diren bezala. ◀

Berango Anabel Landa Berangoko alkatea

«Zerbitzuak eta ingurugiroa dira Berangoko erronkak»

Agenda 2030 Tokiko Plana Euskadin martxan jarri duen lehenetariko udala da Berangokoa. Horregatik, Berangoko alkate den Anabel Landagaz elkartu gara tokiko plan berriaren nondik-norakoak gertutik ezagutzeko.



Anabel Landa Berangoko alkatea udaletxearen aurrean. HODEI TORRES

Hasteko, zer da Berango 2030 Tokiko Plana? Plan hau Agenda 21etik dator, baina, aurrekoagaz alderatuta, ezberdintasun handi bat du: lehenengoa, ingurugiroagaz estu lotuta zegoen, aitzitik, plan berri hau guztiz transbertsala da, eta gai guztiak barnebiltzen ditu. Gaur egunetik 2030era jarraitzeko bide-orria da; hala ere, urtero eta bost urterik behin berrikuspen bat edukiko du, eta, beraz, ez da itxia.

Zertarako balio du? Plan honek 18 helburu biltzen ditu: Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 17 Helburu (GJH), eta Euskadin dugun "Hizkuntza eta Kultura Aniztasuna bermatzeko" izenekoak. 2030eko planaren bidez xede horiek guztiak kontuan hartuko dira Berangoko herriaren etorkizuna zehazteko.

Nork osatu du? Gobernu-taldeak eta udal-teknikariek osatu dugu. Zirriborrea oposizioari pasatu zitzaien,

baina ez dugu euren partetik erantzunik jaso. Bestalde, herritarrei ere aukera eman zaie haien ekarpenak egiteko, baina proposamen bakarra jaso genuen.

47 programa eta 150 ekintza zehatz ditu; horietatik zeintzuk nabarmenduko zenituzke, eta zer-gatik? Berangon bi erronka nagusi ditugu: zerbitzuak eta ingurugiroa. Alde batetik, herria handitzen doan heinean, zerbitzuak biztanleriara ere egokitu behar ditugu. Horretarako, Icaza jauregiaren proiektua dugu, zerbitzu kulturalak handitzeko toki baliagarria izango dena. Beste aldetik, ingurugiroagaz lotuta, Berangok erronka oso garrantzitsu bat dauka esku artean: hondakinen birziklatze-tasa, oso baxua delako. Agintaldi honen hasieran prozesu parte-hartzaile bat ere egin genuen hori konpontzeko, baina partaidetza oso baxua izaten da gai horretan. ◀

Leioa Aldundiaren egoitza-eredu berria

Eskualdeko erreferentziazko egoitza egokitze lanak abiatu dituzte

Bizkaiko Foru Aldundiaren ardura-
pean dagoen Leioako Gizarte Urgaz-
penerako Foru Erakundearen egoitza
(IFAS) eraberritzeko lanak abiatu di-
tuzte. Zentro berrituak arreta pertsonaliza-
tuagoa eta komunitatearekiko eredu irekia-
goa eskainiko duela adierazi du Aldundiak.

Faseka egingo duten eraldaketa-prozesua
bukatzean, zentroak sei bizikidetz-unitate-
tan banatuta egongo diren 132 egoitza-pla-
za izango dituela zehaztu dute. Halaber, Uri-

«**Bizkaian trantsizio
soziosanitarioa
bizkortzen ari da, eta
horren adibide ona
da Foru Aldundiaren
zuzeneko kudeaketa
publikoa duen
Leioako zentro hau**»

SERGIO MURILLO
GIZARTE EKINTZAKO FORU
DIPUTATUA

berako Eskualdeko Erreferentzia Zentroa ere
izango da, 25 plazako unitate soziosanitario
bategaz.

Lanen lehen fasean laugarren solairua era-
berrituko dute, bertan, lehenengo bi bizikide-
tza-unitate independenteak jartzeko; unitate
horiek 20 logela, zerbitzu komunak eta bakoit-
tzean 22 pertsona hartzeko edukiera izango
dute. Azaldu dutenez, etxe baten antzekoena
izango dira egoiliarrek etxeko bizi-proiektua-
gaz jarraitzeko aukera izan dezaten. ◀



Protestetara bueltatu dira

Iparragirre zeharkaleko bizilagunak «etsita» daudela diote eta
mobilizazioetara bueltatzea erabaki dute. Gaitzetsi dute Udalak ez duela
agindutakoa bete eta ez duela zaborra batzeko kamioen gordelekua
lekualdatu. Euren bizi-kalitatean eragina duten beste eragozpenak konpondu
arte mobilizatzen jarraituko dute. IPARRAGIRRE ZEHARKALEA AUZO-ELKARTEA

Leioa Open Dendak kanpaina

Aintzatezpen-ekitaldia egingo diete 25 urtetik gorako komertzioei

Leioako Udalak herriko merkataritza-
eta zerbitzu-establezimenduen garran-
tzia azpimarratzeko Leioa Open Dendak
kanpaina abiatu du. «Gure udalerriko
nortasun-ezaugarri garrantzitsuenetako bat
direlako», adierazi dute udal-iturriek.

Horren bitartez, Leioan 25 urte baino gehia-
go duten establezimenduak omenduko dituz-
te. Horretarako, herritarren parte-hartzea es-
katu dute, mende laurdena baino gehiago
irekita daramaten establezimenduak identifi-
katzen laguntzeko. Jakinarazpenak Behargin-
tza Leioan edo udal-webgunean egin daitezke.
Ekitaldi handia martxoaren 16an egingo dute,
20:00etan, Kultur Leioan. ◀

GetxoGasol

**Urteko 365
egunetan
gaude zabalik**

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta
Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

irati

MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71

iratialgorta@gmail.com

Torrene, 2 48991 – ALGORTA

Sopela Historiaren ikerketa-lana

Sopelako memoria historikoa berreskuratu gura dute

Eusko Ikaskuntzako Koldo Somokueto historialariak 1890 eta 1950 urteen arteko udalerriaren historia berreskuratzeko hainbat artxibo ikertu ditu.

Sopelan 1890 eta 1950 urteen bitartean gertatutakoa biltzen duen *Sopela, 60 urteko historia: Errestauraziotik Frankismora* lana egin du Koldo Somokueto Eusko Ikaskuntzako historialari urduliztarrak. Bere lana bost sasoitan banatu du: Errestaurazioa, Primo de Riveraren diktadura, Bigarren Errepublika, Gerra Zibila eta Frankismoaren hasiera.

Sopelako Udalaren ekimenez duela bi urte hasi zen ikerketa-lan sakonak atzera begirada bat proposatzen du. Hala, 500 orrialde baino gehiagok osatutako hainbat dokumentu-baliabideren bitartez, Sopelaren bizitza politiko, sozio-ekonomiko eta linguistikoki buruzko argibideak plazaratuko ditu.

Somokuetoren hitzetan, «Sopelari buruzko atzera begirako lan hutsetik harago doan ikerketa-lan gogorra da; izan ere, termino historikoetan, udalerriak, mugakideak izan ala ez, elkarren artean elkarrengaitan dute, eta, horregatik, lana kokatuta dagoen aldi historikoak aztertzeke, beste eremu batzuetara ere jo behar da, hala nola Estatukoak, probintziakoak edo eskualdekoak, udalerrian



Sopelako hainbat pasarte aztertu ditu Somokuetak. BURDIN HESIAREN OROIMENA MUSEOA

Lana bilduko duen liburua osatzeko, dei egin dute proiektuak hartu dituen urteen arteko –1890etik 1950era– Sopelako argazki zaharrak izan ditzaketen herritarrei, horien kopia bat egiteko Kurtzio kultur etxera eramanez ditzaten.

gertatzen denaren erreferentzia guztiak aurkitzeko». Horretarako, historialaria Sopelako udal-artxiboan, Bizkaiko Foru Agiritegian edo Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian gordetako dokumentuetan oinarritzeaz gain, Salamancako Memoria Historikoaren Zentro Dokumentalera ere jo du, eta garaiko prentsako eta ahozko testigantzak ere batu ditu, besteak beste.

Lan guztia euskaraz zein gazteleraz argitaratuko den liburu batean bilduko dute; bitartean, aztertutakoaren aurkezpena egingo dute, martxoaren 10ean, Kurtzio kultur etxean, 10:00etatik aurrera. ◀

ikastolenkartea

www.anderdeuna.eus

Martxoaren 27tik apirilaren 21era arte

BATXILERGOA
MATRIKULA ZAITEZ GUREAN

MODU PRESENTZIALEAN:

**Martxoaren 27tik 31ra eta
apirilaren 17tik 21era**



INTERESA IZANEZ GERO,
BETE HURRENGO GALDETEGIA
ETA HARREMANETAN JARRIKO
GARA ZUEKIN.



ander deuna
IKASTOLA

*Biharko mundua
gaur eta hemen*

Gorliz Ikastetxeko berriztapen-lanak

Tokiko ikastetxean hobekuntzak egingo ditu Gorlizko Udalak

140.000 euro bat gorde ditu Udalak eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetuko duten plaka fotovoltaiakoak instalatzeko eta argiak LEDera aldatzeko.



Gorlizko Ikastetxea, kanpotik.

Gorlizko Udalak iragarri du 2023an garatuko dituela plaka fotovoltaiakoak jartzeko eta argiak aldatzeko lanak. Gainera, 2024an, Udalak birgaitze energetikorako beharrak egingo ditu eraikinaren fatxadetan, eta, 2025ean, klimatizazioa hobetuko du, aerotermia sistema berri bat instalatuz eta galdarak aldatuz.

Gorlizko alkate den Nagore Utxupi alkateak adierazi duenez, Udalaren helburu nagusietako bat da ikastetxera joaten diren ikasleen ongizatea «kalitatezko azpiegitu-

rekin» bermatzea. Gainera, alkatetxek azpimarratu du Udalak lege-gintzaldi honetako urte bakoitzean 100.000 euroko aurrekontua izan duela ikastetxean inbertsioak egiteko, eta kopuru hori 140.000 eurora igo dela aurrean, ikastetxeko lanen kostuei aurre egiteko.

Bestalde, berez garbitzen den bainugela bat ere instalatzen ari da Udala, ikastetxearen aurrean dauden zabuei zerbitzua emateko. Hala ere, ikastetxeko patioa arrastiz irekiko dute, Gorlizko ikasle eta bizilagun guztientzako. ◀

Barrika Kirol-proba berria

Barrika Pirata Trail: kirol eta kultur jarduera indartzeko apustua

Barrikako Udalak 12.470 metroko ibilbidea izango duen kirol-proba berria antolatu du apirilaren 16rako. Ibilaldiak udalerriko itsaslabarrak eta barnealdea zeharkatuko ditu, eta parte hartzaileek martxa oinez edo korrika egin ahal izango dute. Proba berri hori udaletxetik abiatuko da, eta Muriola, Barrika eta Meñakoz hondartzak zeharkatuko ditu; ondoren, udalerriaren barrualdera igaroko da, eta Txipio aldera iritsi, Butroeko itsasadarra inguratu eta, bukatzeko, Barrikako udaletxera itzuliko da berriro. Izen-ematearen prezioa 10 eurokoa izango da. ◀

Plentzia Ingurumena zainduz

Hondartza garbitzeko topaketa egingo dute martxoaren 29an

Plentziako hondartza garbitzeko deialdia antolatu dute Uribe Kosta BHI ikastetxeko Batxilergoko bigarren mailako ikasleek martxoaren 29rako, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Antolatzaileek deitoratu dute eremu natural horietako biosfera eta fauna «guztiz kaltetuta» dagoela, eta, horregatik, herritar guztiak animatu dituzte topaketara batu daitezen. Gogoratu dutenez, «gure eginkizuna da, gizarte moduan, gure ingurumena zaintzea eta sortutako kalteak konpontzen saiatzea». Plentziako Ontziola plazan bilduko dira, goizeko 10:00etan. ◀

**ARANTZA
ETXEBARRIA**
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Íñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

Gorliz Radarren apurketak**Segurtasun kamerak instalatuko ditu Gorlizko Udalak**

Udalerriko radarrek «etengabe» jasan-dako erasoei aurre egiteko, Gorlizko Udalak segurtasun kamerak instalatuko ditu. Gorlizko alkate den Nagore Utxupik azaldu duenez, radar berriak «pedagogikoak dira», eta kamerak instalatuko dituzte martxan duten kontratazioarako lizitazioagaz bukatu bezain laster. Utxupik adierazi duenez, 2021eko udan jarri zituzten radarrak, eta, orduetik, hainbat kolpe eta harrikada jaso dituzte. Hori dela eta, hainbat segurtasun kameraren instalazioa martxan jartzea erabaki dute. Izan ere, «apurketa horiek konpontzea oso garestia da», azaldu du Utxupik alkateak. ◀

Plentzia Erakusketa kaleetatik**Plasentia de Butron museoaren 25. urteurrena**

Plasentia de Butron museoak 25 urte daramatza Plentziak eta Uribe Kosta eskualdeak itsasoagaz duten harremana kontatzen. Urteurrena ospatzeko, Plentziako Udalak merkantzien antzinako itsasoko garraioa simulatzen duten egurrezko hainbat kaxoi instalatu ditu udalerriko hainbat lekutan, eta, horien bidez, hiribilduagaz eta museoagaz erlazioz atutako hainbat istorio ezagutu ahal izango dira, pasadizo moduan. Aire zabaleko erakusketa hori 2023 osoan egongo da guztientzako ikusgai. ◀

Plentzia Omenaldia**Matxixakoko itsas-batailaren 86. urteurrena gogoan**

Martxoaren 5ean, domekan, Plentzia eta inguruko herritarrek portuan elkartu ziren Matxixakoko itsas-batailako eusko gudariei omenaldia egiteko.



Hainbat lagun hurbildu ziren Plentziako portuan egindako omenaldira. © OROILORE

Herritarrek Euzkadiko Gudontzidi laguntzailea gogoan izan zuten joan den martxoaren 5ean, domekan. Oroilore Ikerketa Taldeak azaldu duenez, 1936an Eusko Jaurlaritzak sortutako ontzia izan zen hura, eta horretan Matxixakoko itsas-batailan parte hartu zuten gudariak eta haien senideak omendu zituzten. Ekitaldi xume baten bitartez, «askatasuna, justizia soziala, zilegizko II. Errepublikako Gobernu eta Euskal Herriaren eskubideen alde borrokatu

zirenak» omendu gura zituztela azaldu dute omenaldiko antolatzaileek.

Halaber, domekan, aipamen berezia egin zieten, Matxixakoko itsas batailan hildako 60 lagunaren artean, Gorlizko Antonio Oleaga Bilbao eta Remigio Atxirika Ibargoenetzeari, eta Plentziako Pedro Lopezi. Izan ere, Oroilore Ikerketa Taldeko kideek azpimarratu dutenez, «memoria historikoa aurrera begiratzeko lanabes bezala» aldarrikatzen dute, betiere iraganeko gudarien duintasuna oinarritzat hartuta. ◀

Udabarria
bertsotan 2023

Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea

URDULIZ

Maiatzak 4

Kultur Etxean, 18:30ean

SOPELA

Maiatzak 18

Kurtzion, 18:30ean

www.bertsozale.eus

Sarrerak: www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea



Babesleak



Laguntzailea:



Uribe Kosta Ingurumena

Eskualdeko landare inbaditzaileei buruzko berbaldia egingo dute

Uribe Kostako Mankomunitateak eta hori osatzen duten udalerri guztiek ahaleginak bateratu gura dituzte eskualdean panpa-lezka eta beste landare inbaditzaile batzuk desagerrarazteko. Horretarako, gai horri buruzko informazio eta prestakuntza-hitzaldia egingo dute martxoaren 18an, Kurtzio kultur etxean, 11:00etan.

Hitzaldian, eskualdean dauden landare inbaditzaileen inguruko hainbat argibide emateaz gain, gaur egungo lore-balioen garrantziaz ere mintzatuko dira. Gainera, hainbat jarraibide emango dituzte espezie inbaditzaileen aurka egiteko, baita maila partikularrean edo taldean zer egin daitekeen ekosistemak eta toki-biodibertsitatea babesteko ere. Topaketa irekia izango da, eta, horregatik, Mankomunitateak gaian interesa duten eskualdeko herritar guztiak gonbidatu gura ditu jardunaldian parte hartzera.

Zera esan du Josu Landaluzek, Mankomunitateko lehendakariak, topaketaren inguruan: «Uribe Kostako bizilagunak bertaratzera eta aktiboki parte hartzera animatzen ditugu, guztion artean gure eskualdea panpa-lezkarik gabe eduki dezagun. Gaiari buruz daukagun edozein zalantza plazaratu ahal izango da bertan». ◀

Uribe Kosta Diru-laguntzak

Gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatzeko epea ireki du

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatzeko epea zabaltu du. Horiek hartzen dituzten kontzeptu nagusiak etxebizitzagaz lotutakoak dira, hala nola alokairua, hipoteka edo etxetresna elektrikoak. Halaber, oinarritzko beharrianakaz lotutakoak ere izaten dira, besteak beste, sistema publikoak estaltzen ez dituen beharrian medikuak, elikadura eta garraioa.

Eskatzeko epea urriaren 20ra arte egongo da irekita. Eskaera egiteko Mankomunitatearen bulegoetara jo daiteke, 946 762 674 eta 946 763 999 telefono deituz edo www.uribe-kosta.eus webgunearen bidez. ◀



Gure ikasleen ahotan



«Bizi dugun garai aldakor honetan, profil humanisten premia handia dago»

Sara Allende Maguregi (Lemoiz, 20 urte)
Humanitate Digital Globalak (HDG) gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Nire ikasketak Lemoizko eskolan hasi nituen, baina DBHra heltzean, Plentziako Institutura aldatu nintzen. Txikitatik izan ditudan zaletasunak kirola, musika eta artea izan dira eta gaur egun mantentzen ditut. Izan ere, nagusitu ahala, historia, filosofiaz eta politikaz gehiago interesatzen hasi nintzen eta erabaki nuen hori izango zela jarraituko nuen bidea.

Zergatik aukeratu zenuen HDGko gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Batxilergoan ez neukan batere argi zer ikasiko nuen, baina banekien gizarte zientziekin erlazionatutako zerbaite egin nahi nuela. Bat-batean, interneten graduak bilatzen ari nintzela Humanitate Digital Globalak gradu berria aurkitu nuen eta apur bat ikertu eta gero, ikusi nuen hori zela bilatzen ari nintzena. Gainera, entzunda nuen Mondragon Unibertsitateak zeukan metodologia berritzailea eta, egia esan, irakaskuntza tradizionalak nahiko nazkatuta ninduen jada.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain, hirugarren mailan, perspektibaz begiratu, esango nuke esperientzia oso positiboa izan dela. Egia da lehenengo promozioiko ikasle izanda ez neukala zerekin konparatu edo zer espero, baina gaur egun esango nuke gradua egoki aukeratu nuela. Gainera, ni konbentzitu nengoan ikasketak euskaraz egiten jarraitu nahi nuela, eta zoriontzekoa da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean irakasleek duten euskara maila altua eta hizkuntzarekiko konpromisoa.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Lehen aipatu dudana bezala, metodologia ez da tradizionala. Hasteko, ikasturtea moduluetan banatuta dago, hauek 3-8 aste inguru irauten dute, eta horrek ikasgaietan sakonago aritzea ahalbidetzen du. Berez ez dago azterketa teorikorik, lana proiektuen bitartez ebaluatzen da, hausnarketa pertsonal edo talde-lan formatuan gehienetan. Horretaz aparte, eragile sozial, erakunde publiko edo enpresa desberdinekin kontaktuan gaude. Azkenik, 3. eta 4. maila ingelesez dira, eta Erasmosa edo nazioarteko esperientzia derrigorrezkoa da.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Lehenik eta behin, langileen eta irakasleen gertutasuna azpimarratu nahiko nuke, batez ere, jakina delako hau ez dela oso ohikoa izaten beste unibertsitate askotan. Nik Bilbao AS Fabrik Campusean ikasten dut (Zorrotzaurren) eta iruditzen zait, nahiz eta berrikuntza prozesuan dagoen zonalde bat den, orain arnasten den giroa gaztea, eraldatzailea eta sortzailea dela.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Gradua bukatzean, nire asmoa urte batzuk gehiago ikasten jarraitzea da. Pasa den ikasturtean diseinuko ikasketak hasi nituen HDGn ikasten nuen osatzeko, eta artean eta diseinuan gehiago sakontzeko. Lanari begira, ez daukat oso argi zer egingo dudana, baina uste dut bizi dugun garai aldakor honetan, digitalizazioari, ekonomiari, klimari eta abarri dagokien, profil humanisten premia handia dagoela, hartzen ditugun erabakien ondorioak ebalua ditzaten.



Mozorroz blai

Kolorez beteriko askotariko pertsonaiak ikusi ahal izan ditugu otsaileko azken asteotan Uribe Kostan. Batzuk landuak, besteak ez horrenbeste, baina den-denak jaian eta festan murgiltzeko prest. Inauteriak igaro dira, baina herriz herrikako ospakizunek utzitakoak batu ditugu orrialdeotan, egun horietan hiruka.eus webgunean argitaratutakoen laburpen gisa. Zeure burua aurkituko duzu? Adi ibili...

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIAK: HIRUKA













Naomi Hasson Erizaina eta Getxo Zurekineko arduraduna

«Komunitatea osatu dugu sufrimenduari erantzuteko»

Heriotza eta bakardadea bezalako prozesuetan elkar-laguntza emateko sareak sortzea da Getxo Zurekin komunitatearen helburuetako bat. Ildo horri jarraituz, hainbat jarduera garatzen dituzte, gura ez den bakardadea, dolua edo suizidioa bezalako auziei komunitate errukiorren bidez, herritarrek saretuz, sufritzen ari diren pertsonen atsekabea arintzen laguntzeko guneak sortzeko asmoz.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ►

Zer da Getxo Zurekin? Getxo Zurekinen helburua da doluagatik, bakardadeagatik edo bestelako atsekabe-egoeren ondorioz sufritzen ari diren pertsonen komunitateetik abiatuta erantzun bat ematea. Ezin badugu komunitatea ahaldundu eta tresnak eman sufrimendu hori sostengatzeko, pertsonen nola egingo dute aurrera euren bizitzetan? Zaindu gabeko doluek eragindako hainbat depresio kroniko ikusten ari gara. Euren familiako kide batez hainbat urtez zaintzen egon diren pertsonak ikusten ditugu, eta gizarteagaz erabateko deskonexioa duten kasuak daudela konturatu gara, gizarteak ez dakielako besteren mina sostengatzen. Askotan, gure inguruko norbait sufritzen ari denean ez dakigu horri nola erantzun, ez dugu galdetzen, eta galdetzen baldin badugu dena ondo doala erantzutea espero dugu, bestela, ez dugu jakiten zer egin edo nola ihardetsi. Getxo Zurekin sortu zen ahaldundutako komunitate bat sortzeko, besteren sufrimenduan laguntzeko baliabideak emateko, eta, horrez gain, pertsonen gabeziak eta beharretatik erantzun sendoak emateko.

Horrez gain, Getxo Zurekin hiri errukiorren sarearen barruan dago, daborduko 10 udalerri osatzen duten Euskadiko komunitate errukiorren baitan. Laburbiltzeko, komunitate bat osatu dugu besteen sufrimenduari erantzun ahal izateko.

Komunitatearen garrantzia

«Ekintza txikiakaz laguntza asko eman daiteke, ez dago zertan boluntarioa izan behar, gure atarian bizi direnekiko begirada errukiorrago bategaz nahikoa da»

Heriotza tabua da

«Gure gizartean heriotza tabu bat baldin bada, suizidioaren kasua are okerragoa da. Guk helarazi gura dugun mezua da kasu bietarako hor gaudela eta hemen toki bat dagoela entzuna izateko eta laguntza jasotzeko»

Zuen oinarrietan paradigma aldaketa batez berba egiten duzue. Gizarteak aldaketa bat behar du heriotzari aurre egiteko orduan?

Bai, hala da. Horregatik, besteak beste, udalerrian heriotzari buruz berba egiteko Death Cafeak ere abiatu genituen, aditzera emateko heriotza existitzen dela eta ez dela ezer gertatzen horretaz hitz egiteagatik. Denok sufritzen dugu heriotzagaz, beraz, zergatik ez gara horretaz mintzatuko? Guk sortutako ekimenak horregaz daude lotuta, batzuk zabala goak dira eta hainbat alor hartzen dituzte, eta beste batzuk doluaren akonpainamendura bideratuta daude. Horretarako, zutabe ezberdinak ditugu: sentsibilizazioa, ikerketa, formakuntza eta dokumentazioa.

Getxo Zurekin sortzeko ikerketa sakon bat abiatu genuen udalerriko egoera eta beharrak identifikatzeko; horretarako, hilerrietara, ile-apaindegietara, dendeta eta bestelakoetara joan ginen. Oraindino horretan jarraitzen dugu, komunitatea entzuteko jarduerak egiten, zer gertatzen den eta beharrak zeintzuk diren identifikatzeko, eta eman ditzakegun erantzunak bilatzeko. Egiten ditugun ekintza guztiek dute zerikusia heriotzaren akonpainamenduagaz, ikusten ez dena ikustarazteko eta udalerrian landu ez diren gaiak balioan jartzeko.

Horren beste adibide bat da garatzen ari garen Getxo Zurt! suizidioaren komunitate-

-proiektua; zergatik ez dugu suizidioaren inguruan berba egingo? Getxon inork ez du bere buruaz beste egin ala? Beldurra dugu horren inguruan berba egiteko, pentsatzen dugulako jendea triste jarriko dela eta okerrago egongo dela, baina hori ez da horrela. Jendeak benetan eskertzen du, ikusten duelako ez daudela bakarrik euren sufrimenduan. Beraz, Getxo Zurekinen helburua da guztiok ditugun beharrianetara erantzunak eman ahal izateko gu-neak sortzea; ez da beste munduko ezer.

Zer gehiago esan ahal diguzu Getxo ZURTI! ekimenaren inguruan? Hori lantzeko komunitate-proiektua 2021ean abiatu genuen, bestak beste, COVID-19ak eragin zuen beldur emozional horren eraginez. Jon Garcia Ormazza psikiatra getxoztarrak hainbat urte zera-matzen suizidioaren prebentziorako komunitate-proiektu bat sortzeko ahaleginetan, eta gu hortik abiatu ginen. Hasi ginenean, hainbat tailer egin genituen arazoa aztertze-ko, eta horietatik 350 pertsona inguru igaro ziren, tartean, suhiltzaileak edo suizidiotik bizirik atera diren pertsonak. 2022ko irai-lean beste aurrerapauso bat eman genuen, eta sufritzen ari diren pertsonak laguntza eska dezaten eta gainontzekoei suizidioaren zantzuak identifikatzen laguntzeko diptiko batzuk banatu genituen. Uste dugu honetan ere komunitateak sortu behar ditugula, jendea oso txarto ari delako pasatzen ez dutelako entzunak direla sentiarazten dien tokirik. Sufritzen ari den pertsona batek ez du bere buruaz beste egin nahi, baina ez du horrela bizitzen jarraitu nahi, beraz, bata bestea balidatzeko eta elkar entzuteko gune bat sortzea lortzen badugu uste dugu jendea hobeto biziko dela. Horretarako, kontzientziaziorako ekintzak egiten jarraituko dugu hurrengo hila-beteetan.

Komunitatea eratzearen garrantzia azpimarratu duzu. Getxo Zurekinen helburua horretan ardazten dela esango zenuke? Mendekotasun edo gaixotasun aurreratu baten egoeran dauden pertsona asko daude gure artean; berbarako, Getxon, biztanleriaren heren batek 65 urte baino gehiago du, beraz, pentsa zenbat pertsona dauden une honetan egoera konplikatu horretan. Gero eta seme-alaba gutxiago dituen eta komunitatearen indarra galtzen ari den gizarte batean bizi gara, eta horren inguruan berba egiten hasten ez bagara, jendea bakarrik eta modu txarrean hiltzen jarraituko da. Egindako ikerketan aztertu genuen bakarrik edo arazoakaz bizi den jendeak egunean zenbat denbora pasatzen duen lehen mailako osasun arretan: gutxi gorabehera bizitzaren



Naomi Hasson Doble Sonrisa fundazioko kidea da, ekimena abiatu zuen elkarte, hain zuzen, baina

Txikitatik heriotzari buruz berba egin?

«Bizitzan zehar hainbat dolu egon ohi dira, eta denek ez dute zertan heriotzagaz lotura zuzena izan behar. Hala ere, txikitatik ez badugu ikasten galera horiei nola aurre egin, sentitzen duguna kudeatzen ikasi, galera garrantzitsu bat dugunean horrek izugarritzko talka sortzen digu. Txikitan bizitako galera txiki edo handi horiek nola kudeatzen ditugun zuzenean eragina izango dute nola aurre egingo diegun gure inguruko galera esanguratsuei».

% 5. Gainontzeko % 95 euren etxeetan bakarrik pasatzen dute, txakurrak, telebistagaz edo familiagaz, baldin eta badaukate. Beraz, gure hausnarketa izan zen denbora horretan guztian zer egin daitekeen pertsona horiekaz, modu duin batean bizi daitezela. Ondorioztatu genuen ekintza txikiakaz laguntza asko eman daitekeela, ez dagoela zertan boluntarioa izan behar, gure atarian bizi direnekiko begirada errukiorrago batez nahikoa dela. Bidezabaleko anbulatorioko mediku batek esan zigunez, lehen baino asko gutxiago joan ohi dira kontsultara gure ekintzetara datozen pertsonak, eta hori ere aztertu beharko genuke. Horrez gain, nabarmenduko nuke egiten ditugun jarduerak guztiak irekita daudela eta gura duenak parte har dezakeela horietan.

Horretarako ere badaukazue proiektu bat, ezta? Bai, Sare Komunitarioak Ehunduz izenekoa. Norberak bere inguruan bizi diren-tatik sufritzen ari diren pertsonak identifikatzeko eta horiekaz konektatzeko tresna bat sortu genuen. Seguruenik pertsona horrek ez



helburua da etorkizunean Getxo Zurekin bere kabuz eta boluntarioen bitartez kudeatzeko gai izatea.

du ezer eskatuko, euskaldunon kultura oso barrura begiratzekoa baita, baina bakarrik ez dagoela jakinarazteagaz eta behar duenerako hor norbait izango duela ohartarazteagaz nahikoa da. Baina hori komunitatean egin behar da, bizilagunen artean zaintza-sare bat sortuz besteen beharrianak identifikatzeko. Boluntarioak egiten dugu lan, baina ez dugu pentsatzen boluntarioa edo inor berezia izan behar denik sufritzen ari den horri komunitatetik laguntza eman ahal izateko.

Erruki hitza ere aipatu duzu askotan. Ez duzu uste hor erlijioagaz nolabaiteko nahasketa sor daitekeela? Bai, asko erabiltzen dugun berba da, eta, nahiz eta erlijioaren eraginez hain ospe txarra izan, gu empatia ekintzaileari buruz ari gara, ez dugu erlijioagaz zerikusirik. Errukiari buruz asko egiten dugu berba komunitateak bere benetako esanahia ulertzea gura dugulako. Hala ere, COVID-19aren eraginez-edo, jendea konurtatu da dolurako bere erritualak izatea oso garrantzitsua dela, eta egia da elizak egiten

Death Cafeak hileko azken eguaztenetan egiten dituzte, eta gazteentzako hurrengo saioa martxoaren 29an egingo dute, Piper's Irish Pub tabernan, 18:00etan. Diotenez, horiek heriotzaz arau eta aurreiritzi barik berba egiteko eta bizitza aberasteko guneak dira, ez dira dolua gainditzeko ezta ondorioak ateratzeko saioak.

zituen hiletak asko laguntzen zutela. Berbarako, pertsona batek behin esan zigun ez zela hileta elizkizunen garrantziaz ohartu, bere aita hil zen arte. Elizan zeundela, hainbeste pertsona ikusi zituenean suspertuta sentitu zela esan zigun, bere aita maitatua izan zela sentitu zuelako. Uste dut errituak oso garrantzitsuak direla, eta, horiek aldatu egin diren arren, guk uste dugu norberaren araberrako erritua egitea garrantzitsua dela.

Nola lantzen duzue doluaren auzia? Denborak dena osatzen duela esan ohi da, baina denborak ez du ezer sendatzen, baizik eta denbora horregaz egiten denak. Gainera, besteen harremana ere beharrezkoa da doluan dagoena balioetsia senti dadin. Gertatzen dena da gizarte hain azkar doala ez dugula horretarako behar bezalako denborarik hartzen, eta pentsatzen dugu denborak bere kabuz konponduko duela guztia. Askok esaten digute norbait galdu eta sei hilabeteren ostean beraien inguruko jendea aspertzen dutela; ondorioz, euren dolua bakardadean bizi dute. Hala ere, bakardadean hori konpontzea oso zaila da, eta zuretzako garrantzitsua den norbait galtzen duzunean, dolua betirako izango da. Baina nik denbora eta gune bat baldin badaukat pertsona horri buruz eta nire galerari buruz berba egiteko, min hori zerbait ezberdin bihurtu dezaket. Horretarako, hamar pertsonako bi dolu-talde ditugu Getxon, eta pertsona horiei laguntza indibiduala ematen dien taldeak ere badaude.

Hori lantzeko darabilzuen eremuetako batzuk Death Cafeak dira, ezta? Bai, hori guztia Erresuma Batutik ekarri genuen; ez dugu ezer berria asmatu, dagoena egokitu dugu. Lehen, 2016an egin genuen, Gasteizen, eta gero hona ekarri genuen, eta hilero egiten ditugun topaketa irekietara 15 edo 20 pertsona etortzea lortu dugu. Gainera, Gabonen aurretik, gazteentzako Death Cafe bat ere egin genuen, aurrenekoz; horren ezberdintasun handia da 19 urteko bi gaztek ahalbidetu zutela eta 25 urtetik beherako gazteak bakarrik doazela. Hasieran, pentsatu genuen ez zela inor joango, baina, azkenean, 12 gazte joatea lortu zuten; arrakasta handia izan zuela uste dugu.

Death Cafe-etan hainbat gauzez berba egiten dugu, baina niretzat ederrena ez da barruan gertatzen dena, baizik eta jendea etxera bueltatzen denean gertatzen dena: horietan jorratzen ditugun gaiez berbetan hasten baitira euren inguruetan, modu aske eta naturalean. Ederra da uhinak nola doazen zabaltzen eta jendeak heriotzari buruz berba egiteko beldur hori galtzen duela ikustea. ◀

Opor-egunez gozatzeko auke

Txindokiko Itzala | Abenturaz blai



Gipuzkoako abentura parkerik hoberena dugu hau, Txindokiko magalean, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan. Abaltzisketan kokatuta, Txindokiko Itzala abentura-parkeak maila, adin, altuera eta bakoitzaren abileziara egokitutako ibilbideak ditu diseinatu, familian edota lagun artean abenturaz disfrutatu ahal izateko. Parkeak jolasez eta tirolinez betetako zirkuitu bi ditu: Txikia, 3 eta 8 urte arteko neska-mutikoei zuzendutakoa; eta Osoa, 1,35 metroko altuera eta 8 urte baino gehiago dutenentzat begirakoa. Hala, norberak aukeratu ahal izango du zeini egin gura dion aurre. Erronkaz beteriko bideak dira horiek, zuhaitzen artean nork bere abilezia eta oreka gaitasunak erakusteko modu paregabea eskaintzen dituztenak. Beraz, gogora ezazue arropa eta oinetako erosoak janztea; zuhaitz artean ikusiko dugu elkar!

Eureka! | Zientzia Museoa



Ingurune natural ikusgarriaz inguratuta, zientziaren museoak edukiak era interaktibo eta berritzailean aurkeztu ditu, objektuen maneiuaz eta esperientziaz zientziaren gozatzeko helburuagaz. Museoak zortzi areto tematikotan banatutako erakusketa iraunkorra izatez gain, LEGO materialen bidez, robotika eta programazioa duten jardueraz betetako Logik aretoa ere badu. Halaber, astronomia-zaleentzako planetario digitala du eskura, Eguzki Sistematik kupula osora bidaiak egin ahal izateko. Gainera, Animalia aretoan hiru giro berezi birstortzen ditu, bertan, ekosistema horietako bakoitzeko 20 espezie adierazgarri ezagutu ahal izateko. Era berean, museoak zientzia-ikuskizun ugari eskaintzen ditu, esaterako, animazioak edota proiektzioak hizkuntza ezberdinetan planetarium digitalean. Beraz, etorri zaitez, eta gozatu zientziaren berritzaile batean!

ZAINDU

ERRESPETATU

MAITATU

Egunero irekita
Abierto Todos los días

www.aquariumss.com

AQUARIUM BONISTIA - SAN SEBASTIAN

ra ugari

Ez da beharrezkoa urrutira joatea Aste Santuko opor-egunez primeran gozatzeko. Inguruotan hamaika aukera ditugu eskura, kulturen murgiltzekoak zein Euskal Herri osoko naturaz gozatzekoak. Hona hemen hainbat aukera!

Arrauning | Urumea barrenean arraun



Donostiako turismoko markotik urrun dago Urumea ibaia. Urrun, baina, gu guztiongandik oso gertu ipintzen du Arrauningek. Donostiatik, Urumea ibaia ederra da, baina Urumea barrutik Donostia ikustea eta Urumea ezagutzea, harrigarria da oso. Garai bateko sargardoaren ibilbidea, portu zaharrak, jolas parkea, ontziola...

Urumeak, mila sekretu ditu gordeak; eta Arrauningek, sekretu horiek erakustez gain, sekretu horiekaz guztiakaz gozatzeko aukera eman gura du kanoa kanadiarretan. Kanoa kanadiarrak erosoak, lasaiak eta seguruak dira. Lagunakaz edota familian gozatzeko ezin egokiagoak. Uretan arraunean aritzeko gutxieneko adina lau urte dira; gehienezko adinik ez dute, «bizirik den artean»: «Ziur gaude ondo pasako duzula. Guk ondo pasatzen dugu, eta poztasun hori kutsatzeko gai gara. Urumeatik eta euskaraz, zuretzako!».

Igeldo mendia | Atrakzio-parkea



Gipuzkoako hiriburua hurbiletik eta emozio zirraragarri beteta ezagutzeko ezinbesteko geltokia da Igeldo mendiko atrakzio-parkea. Haur eta helduentzat zuzendutako 20 atrakzio ditu parkeak, horien artean, Suitzar mendi txundigarria. Inguruko atrakzio-parke bakarra izanda, XX. mendearen hasierako jolas-parkeen esentzia eta edertasuna gordetzen du Igeldo mendiak, eta familia osoagaz batera egun-pasa zoragarriaz gozatzeko aukera aparta eskaintzen du. Gainera, parkearen erdian, Dorre handi bat dago, XVIII. mendean eraikitako itsasargia da. Bertan, gure bizimodu eta ohiturak azaltzen dituen erakusketa dago ikusgai, ondo pasatzeaz gainera, antzinako bizimoldeez ikasteko aukera eskaintzen duena. Halaber, dorretik paisaia ikusgarriak miretsi daitezke: Matxitxako lurmuturretik hasita Frantziako Landetaraino. Galduko duzu?

topic.

Tolosako Nazioarteko Txontxongilo Zentroa

Euskal Herria Plaza 20400 TOLOSA (GIPUZKOA) • 943 650 414 • www.topic.eus



Karpin Fauna | Esperientzia basatia

Karrantza Haranean, naturaren itxurazko baretasunean, panterak, katamotzak, oreinak, kanguruak eta guanakoak zelatan daude. Karpin Abentura basa-faunaren babes zentroko biztanleak dira. Animalia horiek bortizkeria edo ehizaren biktimak dira, eta, euren berezko habitatera itzultzeko gai ez direnez, Karpinen ingurune seguru batean bizitzeko aukera dute.

Hiru gune tematikotan banatzen da Karpin Abentura: Dinosauroen harana kanpamendu paleontologikoa; Piztien lorategia, hegazti eta ugaztunakaz; eta Animalia, 55 espezieta animalientzako babeslekua. Bere xede nagusia da animaliak eta ingurunea errespetatzeko behararen aldeko kontzientzia hartzea.

Hori gutxi balitz, Karrantzako Haranak hainbat sorpresa gordetzen ditu Bizkaiko udalerririk handiena eza gutzen ez dutenentzat: Pozalaguako kobazuloak, Dolomitas lantegia, Villaverde Harana zentro etnografikoa...

Urdaibai Bird Center | Museo bizia

Urdaibai Bird Center jendaurrera irekita dago hegaztiez eta horien migrazioez gozatzeko eta ikasteko. Ekipamendua bera paduraren behatoki aparta da, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean dago kokatuta, Gernika-Lumotik minutu gutxira.

Zentroan bertan, hegaztien ikerketa- eta dibulgazio-taldeak bildu eta koordinatzen dira, eta, horrela, bisitariak hegaztiei buruz garatzen diren proiektuen lekuko pribilegiatuak ere badira. Zentro bizia da; inork ez daki egun berriak zer ekarriko duen. Izan ere, hegaztiek zehazten dute horren norabidea eta egun bakoitzeko agenda.

Bisitak ez dira aurretiaz gorde behar, eta sarreretan batutako dirua Urdaibai kontserbatzera bideratzen dute. Martxotik maiatzera bitartean, aste-akabuetan eta jaiegunetan bisitatu daiteke; Aste Santuan ere bere ateak irekiko ditu, apirilaren 1etik 16ra, eta udan egunero egongo da zabalik, egun guztietan, 11:00etatik 19:00etara.

ABENTURAZ GOZATU!
zuhalten artean hegan

10 ZIRKUITU
109 JOKO DESBERDIN

2 URTETIK GORAKOENTZAKO INSTALAZIOAK

1-24 METRO TARTEKO ALTUERAKO ZIRKUITUAK

EUSKADIKO ABENTURA-PARKERIK HANDIENA



KIKIRIKI OILASKOTEGIA
MARTXOAREN 11-TIK AURRERA ZABALIK!



INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: WWW.SOPUERTA-ABENTURA.COM / 663 805 609



Sputnik Climbing Berangok eskalada probatzera animatu gura zaitu.

Eskalada modan dago, baina... zelan demontre has daiteke horretan?

Baliteke eskaladak inoiz atentzioa eman izana, dela Sputnik-en iragarki bat ikusi duzulako Getxoko metro-geltokian, azken Joko Olimpikoakaz flipatu zenuelako, edota aurrekoan aldameneko emakumea etxera itzultzen ikusi zenuelako, katu-oinak motxilatik zintzilik eta gogobetetasun aurpegi handi bategaz. Baliteke, halaber, oraindino probatzera animatu ez izana, uste duzulako eskalatzailak sasoi betean dauden pertsonak direla, kirolariak eta beti zutik erortzeko (edo ez erortzeko) berezko trebetasuna dutenak. Inondik inora; eskalada pentsa dezaitezuna baino kirol eskuragarriagoa da.

Diziplina hau mundu osora hurbiltzeko, Sputnikek zentro berri bat ireki zuen joan den azaroan Berangon, eskaladan hasteko behar duzun guztiagaz. Zailtasun desberdinetako 140 erronka bertikal inguru dituen rokodromoa da, 1.500 metro koadroko instalazioan, helduek zein txikienek eremu bera partekatu ahal izango dutena. Bertan, hiru eta lau metro arteko hormek bizia hartzen dute aretoko bloke bakoitza osatzen duten forma eta kolore desberdinetako presei esker.

Izan ere, Sputnik Berangok eskalada-instalazioetako azkenekoa duen gune bat eka-

rri du Uribe Kostako bihotzera, Europako punta-puntako zentroen mailara, eskalada eta modernitatea eskutik helduta doazenak.



Eskalatzen hasteko beharrezkoa den ekipamendua sinplea da: katu-oinak eta magnesioa, instalazio berean alokatu daitezkeenak. Hurrengo eta oso gomendagarria dena da prestakuntza jende kualifikatuagaz jasotzea. Izan ere, eskalada jarduera seguru da, betiere behar bezala egiten baduzu.

Eta uste baduzu egoera fisikoa mugatzaila izan daitekeela zu hasteko edo aurrera egiteko, albiste on bat dugu: oker zaude. Kirol honetan hasteko beharrezko egoera fisikoa pisua, gorpuzkera, adina edo esperientzia edozein izanda ere daukazuna da. Beti dago erronka bat bakoitzarentzat. Beraz, jantzi arropa eroso, hurbildu Sputnik Berangora, eta ekin eskalatzerari!

Sputnik Climbing Berangora joateko bost arrazoi:

1 Kirolagaz gozatzeko modu berri bat aurkituko (edo berraurkituko) duzu. Agujetak ere gustatuko zaizkizu.


2 Sozializatzeko eta lagun-talde berriak sortzeko modu bikaina da, zure kezka berekoak edo guztiz desberdinak diren gizon-emakumeakaz.

3 Giro ona da nagusi. Atetik sartzen zarenetik joaten zaren arte: irribarre egiteagatik sortutako zimurrak ditugu.

4 Kafe bategaz ere has zaitezke, eta La Cantinako garagardo bategaz amaitu, baita gozogofoz afaldu ere!

5 Dena ez da eskalada. Sputniken, zuzeneko musika gustatzen zaigu (kontzertuak izaten ditugu hiler), janari ona gustatzen zaigu eta festa gustatzen zaigu.

Elkar hobeto
ezagutzea
gura duzu?



NON GAUDE?

Erremerariena 6. 48640 Berango
(Berangoko metro-geltokitik bost minutura oinez, merkataritza-gune baten erdian. Gainera, aparkaleku pribatua dugu!)

Telefonoa: **747 454 264**
Astelehenetik domekara: 10:00-22:00

Martxoa

Berango

Martxoak 11, zapatua

Bertso-saio berezia

19:30 | Moreaga parkeko karpan

Irati Anda, Oihane Perea eta Kaitin Allende bertsolariakaz.

Martxoak 18, zapatua

Kontzertua: Berango-Altzükü

19:00 | Berango Antzokian

Publiko guztientzako emanaldia: Altzükütarrak, Txarli eta Joselu eta Otxandategi abestaldeagaz.

Martxoak 25, zapatua

Helduentzako ikuskizuna:

Kabaret eta Burlesque

19:00 | Berango Antzokian

Martxoak 26, domeka

Familiarentzako antzerkia:

Gurekin konektatu

19:00 | Berango Antzokian

Antxo ta Pantxa bikote dibertigarria mendira doaz kanpamendura.

Erandio

Martxoak 24, barikua

Kontzertua: Olaia Inziarte

20:00 | Merkatu Zaharrea

Lehengo Lepotikan Burua bere lehenengo diskoaren aurkezpena.

Martxoak 26, domeka

Antzerkia: Sagastiarak

19:00 | Josu Murueta kultur etxean

Apirilak 2, domeka

Kanpomartxo

10:00 | Lutxanan

Berbots euskara elkartearen egun handia.

Getxo

Martxoak 15, eguaztena

Jabekuntza eskolako mintegia

18:00 | RKEEn

Feminismoaren laugarren olatua 12 komikiren bitartez aztertuko dute.

Martxoak 17, barikua

Kontzertua: El viejo Chimango

19:30 | RKEEn

Ska, reggae eta erritmo latinoen eragina duen gaztelaniazko pop-rock taldearen kontzertua.

Martxoak 24, barikua

Tokikom X. urteurreneko

jardunaldiak

09:00 | Olatua gurutzaontzien terminalean

Euskarazko 76 toki komunikabidek osatzen duten taldearen urteurrena ospatzeko.

Martxoak 25, zapatua

Bizkaiko Bertso Munduko

Emakumeen II. Topaketa

12:30 | San Nikolas plazan

Jone Uria eta Onintza Enbeita bertsolariakaz. Ostean, bertso-bazkaria 14:30ean, Algortako Abian kultur elkartearen.

Martxoak 30, eguna

Ase Bertsoz

20:00 | Azebarri kultur elkartearen

Martxoak 31, barikua

Antzerkia: Winona & Grace

19:30 | Muxikebarrin

Bi aktore gazteren patuari buruzko antzezlan.

Gorliz

Martxoak 10, 17, 24 eta 31

Multiiekintzak

17:30 | Ikastetxeko patioan

Dohainik eta adin guztientzako.

Martxoak 12, domeka

III. Martxa Lila

10:00 | Elizako plazatik

Gorliz eta inguruetatik hiru kilometroko ibilbidea.

Martxoak 25, zapatua

X. Indaba Txapelketa

08:00 | Elizako plazan

Urris taldeak antolatuta.

Leioa

Martxoaren 10etik maiatzaren 7ra

Erakusketa:

Oma. Lau Ibarrola eta

paisaia bat

Kultur Leioan

Ibarrola familiako hiru belaunaldi elkartuko dituzte Oma harana irudikatzen.

Martxoak 12, domeka

IV. Emakumeen Martxa

11:00 | Boulevardetik abiatuta

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta antolatutako lasterketa herrikoa.

Martxoak 19, domeka

Greenpower-Bridgestone

zirkuitua

10:00 | Boulevarden

Gazteek sortutako ibilgailu elektriko eta ekologikoen seigarren zirkuitua.

Martxoak 19, domeka

Antzerkia: Esna

18:00 | Kultur Leioan

Gorputzakaz edo irudimenagaz esperimentatzeko dantza- eta antzerki-ikuskizuna.

Plentzia

Martxoak 12, domeka

Artisautza azoka

10:30 | Ontziola plazan

Martxoak 15, eguaztena

Hitzaldia mugikortasunari

buruz

19:00 | Goñi Portalen

Hizlaria: Iker Maguregi, Herri Lurrak elkarte ekologista eta Eusko Car Sharing elkarte.

Martxoak 18, zapatua

Musika tailerra familian

11:00 edo 12:00 | Goñi Portalen

Izena eman behar da aldeaz aurretik.

Sopela

Martxoak 17, barikua

Musika: Katuen kontuak

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Ines Osinaga eta Joseba Sarriñandianen berbak eta kantuak.

Martxoak 19, domeka

Umeentzako antzerkia:

Arrainak bihotzean

18:00 | Kurtzio kultur etxean

Itsas hondora bidaia egiteko proposamena.

Martxoak 26, domeka

Herri lasterketa

10:00 | Udaletxeko plazatik hasita

Izen-ematea Munarri Atletismo Taldearen webgunean.

Martxoak 26, domeka

Zinema familiarentzako:

Ilargirantz

18:00 | Kurtzio kultur etxean

Animaziozko zinema familia guztiarentzako.

Urduliz

Martxoak 12, domeka

Elkartasun azoka eta

herri-bazkaria

11:00 | Txiberri tabernan

Martxoak 18, zapatua

Kontzertua:

Mrs. Klams, Arratians

eta Akatz

17:00 | Txiberri tabernan

Sarrerak salgai 10 eurotan Plentziako Uriolan, Urdulizko Txiberrin eta Sopelako Laiaken.



Carlos Jimenez

Nongoa

Albacete, Gaztela Mantxa.

Adina

38 urte.

Zertan dabil


Uneotan, ikasten.

Noiz heldu zinen?

2019ko ekainean.

Noiz arte bertan?

Auskalo.



Lurraldea

Espainiako Estatuak.

Azalera

505.944 km².

Hiriburua

Madril.

Biztanleria

47.615.034 (2022).

Hizkuntzak

Gaztelania da hizkuntza ofiziala; hala ere, Autonomien Estatutuak beste hainbat ofizial gisa aitortzen ditu autonomia-erikidegoetan, hala nola euskara katalana eta galegoa.

Moneta

Euroa.

«Tokiko historia ezagutzeko, euskara oso garrantzitsua da»

IKER RINCON MORENO ►

Algortako inguru erdaldunak kikildu ez eta tokiko historia eta errealitatea ezagutzeko euskararen munduan txonbo egitea behar-beharrezkoa zela argi izan du gurera etorri zenetik Carlos Jimenezek. Albacetekoa sortzez, euskaraz egiten ikus daiteke lagunakaz, edota, tarteka, tabernaren bateko barraren atzean. «Prozesu zaila eta luzea izan da euskara ikastea, baina, gaur egun, esan dezaket bizi ahalko nintzatekeela euskaraz. Harremanak, ahal dudan guztietan, euskaraz egiten ditut, eta jendeak hori asko eskertzen du».

Aitortzen duenez, txikitatik izan zuen bere herria ez zen beste tokiren batean bizitzeko grina, «kostatik gertu». Hala, besteak beste, Iruñean eta Londresen bizi izan da, lanean. Azken horretan izan zuen lehenengo harremana Algortagaz, tokiko bi pertsonakaz konpartitzen baitzuen pisua han, eta haietako batek eskaini zion Algortara etortzea. «Oso harreman ona izan genuen, eta, gaur egun, nire 'familia' dira hemen».

Albaceteri dagokionez, Jimenezek dio daborduko bere familiak eta lagunak Vasco deitzen diotela, berba egiteko modua aldatu duelako, «eta, egia esan, haiekin nagoenean hango azentua nabaritzen dut, orain gutxira arte existitzen ez zena uste onena». Albacete Mantxako New York dela dio, «inguruko udalerri populatuena», eta gogoratzen du famatua dela aitzo eta labanengatik. Jendeari dagokionez, haien burua «mantxatar petotzat» dutela dio, eta haien ezaugarria «umiltasuna eta umorea». Jan-edanaren harira, hango esamolde bat ekarri du gogora, «*del cerdo hasta los andares*», edozein tabernatan topa daitekeelako txerrikiren bat. «Harrituko zinatekete mantxatar entsalada bat eskatzerakoan». Hala ere, bere jatekorik gogoena *atascaburras* da, patata, bakailaoa, berakatza eta olioia almaizean xehatuta. Ardo onak ere badituztela dio, inguruan mahasti asko daudelako, Gaztela Mantxa jatorri-izena dutenak.

Inguruan leku asko daude bisitatzeke, hala nola Río Mundoren jaiotza, urtero *reventón* izeneko fenomeno hartzen duena, eta Alcalá de Júcar herria, «penintsulako politenatarikoa». ◀

Lehen/Orain **Plentziako Aramburu botika, 1920-30ko hamarkadan**



ITURRIA: ARAMBURU BOTIKA



Uribitakora



ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

TESTUA
Daniel de
Miguel Avecilla

DOINUA
Itsasoari begira

ARGAZKIA
Hodei Torres

Pazientzia

Portu zaharra, Algortakoa,
zaharrenetan zaharren.
Mutil bat dago horma txikian
itsasoak zer dakarren.
Aizu! mutilo, zer galdu duzu
hortxe bertan getxoztarren
txoko maitean? Hotz egiten du,
gorde zaitez arin, arren.
Itsasoari begira zaude
ekaitza ekarri arren.

Begirada bat itsas aldera
Itxaropenaz beteta.
eta ikusi zaitut pentsakor,
altxa ezazu kopeta!
Esku artean zer darabilzu?
Zigarroa ala peta?
Haize bortitzak botako dizu!
Egin, bada, hausnarketa:
Denboralea igaro arte
hobe etxean gordeta

Ezin itxaron, eta neguan
joan zara itsasora
Otsaila buka, eta atoa,
pasako gara martxora.
Udaberrian, ohartu gabe,
ostadarra eta lora.
Gordelekuan amaitu lana
ez zaitez, bada, aztora.
Pazientzia, adiskidea,
laster uda izango da.

BA AL DAKIZU 5 URTEAN 255 SALTOKI IZATERA IRITSI GARELA GETXOKO EUSKARAREN LAGUNEN SAREAN?

SAREAK ZUBI-LANA EGITEN DU, EGUNEROKOAN EUSKARA DARABILTEN BEZEROEN ETA NEGOZIOEN ARTEAN

255 enpresa, euskara egunerokoan zaintzen dutenak eta beren negozioetan, errotulazioan, erakusleihoan, bezeroekin, hornitzaileekin... erabiltzeko ahalegina egiten dutenak.
255 enpresa, euskararekiko konpromisoa sinatu dutenak.

*Euskararen laguna saltokia
Comercio amigo del euskera*



Kontsultatu mapa interaktiboa eta ezagutu Getxoko Euskararen Laguna Saltokiak

www.getxo.eus/euskararenlaguna

Getxoko herritarren %33,53 euskaldunak dira, eta %23,12 ulertzeko gai. Guztira, 40.000 biztanletik gora

Zure erosketetan, izan zaitez ahobizi! Sorpresa atseginak hartuko dituzu!

255 establezimenduk osatzen dute Euskararen Laguna Saltokien Sarea



ARI

Harri Tabernako bezeroa

Andra Mari

NABARI DUZU EUSKARA GEHIAGO ERABILTZEN DUZULA EROSKETETAN?

Esango nuke nabaritzen dela azaleko erabilera handitu dela, batez ere agurrak eta horrelakoak. Baina gero, sakonean, elkarriketak euskaraz mantentzeko lan handiagoa egin behar dugu. Dakigunok gehiago erabili beharko genuke.

Igeldo Burdindegia Romo

ZERGATIK EGITEN DUZU LEHEN HITZA EUSKARAZ?

Egunero jendea euskaraz agurtzean konturatzen naiz uste baino gehiago direla euskaraz egiteko gai. Badakite ni euskalduna naizela, eta gero eta bezero gehiago zuzentzen zaizkit euskaraz.



UNAI

ARRETA EUSKARAZ

Euskararen Lagunak diren saltokien %75ek bezeroei euskarazko arreta eskaini diezaiekete.



- Bai, ordutegi osoan
- Bai, baina ordutegi osoan ez
- Ez
- Jendaurreko arretarik gabe

Getxoberri berezia osorik ikusteko



Eider Eibar Marrazkilaria eta ilustratzailea

«Ilustratzaileok egiten ditugun marrazkien atzean intentzio asko daude»

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Eider Eibarrek arima marrazkiz beteta duen artista moduan definitzen du bere burua, «noizean behin horiek atera behar ditut, edozein euskarritan dela ere». Hogeitaz beste lan askoren artean, haur eta gazteentzako ilustrazioak egiten jardun eta gero, orain, marrazkiak, animazioa eta euskara uztartu ditu Kokoak izeneko bere proiektu berrian. Gainera, otsailaren 9an, Gorputz feministak irakurketa-zikloko parteide izan zen Algortako Abian kultur elkartearen, eta, horregatik, beragaz elkartzeko aukera aprobetxatu dugu.

Nola hasi zinen ilustratzaile moduan lanean? Denok bezala, txikitan asko marrazten nuen, eta, ordutik, ezin izan diot marrazteari utzi. Lan-munduan hasi nintzen Arte Ederretako Gradua ikasten nengoenean: garai hartan, *Gara* egunkariak Gabonetan ateratzen zuen 12 liburuko bilduma bat, euskaraz eta ingelesez, eta falta zitzairen marrazkilaria bat. Norbaitek nire izena proposatu zuen, eta, orduan, ilustratzaile lanetan hasi nintzen. Hortik aurrera ez naiz gelditu.

Otsailaren 9an, Gorputz feministak irakurketa-zikloan parte hartu zenuen Algortako Abian kultur elkartearen. Zer landu zenuen saio horretan? Saio horretarako, Getxoko irakurketa klubekoek nire bi obra aztertuta zituzten. Hortik abiatuta, nire obra ezberdinen bidez, nire ibilbide artistikoa azaldu, eta gorputzak, generoa eta rola ilustrazioetan nola lantzen ditudan ezagutarazi nien. Aprobetxatu nuen argitzeko ilustratzaileok ez ditugula soilik marrazkiak egiten, bidean erabaki asko hartzen ditugula: gure marrazkien atzean intentzio asko daude.

Zure kasuan, nola gorpuzten dituzu zure ilustrazioak? Ilustrazioaz bizi nintekeela ohartu nintzenean, nire txikitako ipuinak aztertu nituen, eta gauza asko faltan bota nituen: familia eta lagun eredu anitzak, heteronormatibitatek ateratzen ziren gorputzak, azal-kolore ezberdinak... Beraz, nire sorkuntzan gabezia hori betetzen saiatu naiz. Ilustratzaileok ardura handia dugu; haurrek gure marrazkietatik jasotako ereduak barneratzen



Eider Eibar marrazkilaria proiektu berria da Kokoak. NAHIA MARTINEZ GONDRA

Erreferente falta

«Nire txikitako ipuinak aztertu nituen, eta gauza asko faltan bota nituen: familia eta lagun eredu anitzak, heteronormatibitatek ateratzen ziren gorputzak, azal-kolore ezberdinak...»

dituzte, eta ni saiatzen naiz marrazkiek helarazten duten informazioa ahalik eta pluralean izaten.

Feminismoa presente duzu zure lanean?

Euskara bezala, feminismoa era natural batean dago presente nire bizitzan. Niretzako, feminismoa askatasuna eta berdintasuna da, eta nire lanaren bitartez islatzen dut. Horrekin lotuta, saiatzen naiz pertsonaien artean bortizkeriarik ez erakusten, nahi gabe gorputzeko jarrerekin erakusten ditugulako horrelako goerak.

Zer kontatzen duzu zure Kokoak proiektu pertsonalean?

Egitasmo honen hasierako helburua zen haurrei erakustea nik nola egiten nituen marrazkiak formatu bisual batean. Hala, Kokoak izeneko zazpi pertsonaia sortu nituen, eta, gerora, haiekin joko interaktibo bat sortzeaz gain, Kokoei euskara irakasten dieten eta eskulana egiten dituzten Maeiour haurrak irudikatu nituen. Beraz, Kokoak da marrazkiekin eta euskararekin erakitako kutxa koloretsu bat, Interneten eskuragarri dagoena, euskaraz eta dohainik. ◀

QR KODEA
ESKANEATUZ GERO,
ELKARRIZKETA OSOA
IRAKURTZEKO AUKERA
IZANGO DUZU.



Iñigo Astiz Poeta eta kazetaria

«Ez dut idatzi nahi umeak zuzentzeko, aske izateko esparru bat sortzeko baizik»

ANDER ZARRAGA ▶

Jabier Muguruza musikariaren doinuei letrak jarri zizkien Iñigo Astizek, eta hortik jaio zen *Dodoa* izeneko diskoa. Iaz, lan horri beste itzuli bat eman eta podcast formatuan jantzi zuten EITBn. Esperientzia nolakoa izan den eta bere poesia-lanari buruz galdetzeko elkartu gara Astizegaz.

Dodoa Jabier Muguruzaren eta zure arteko elkarlanetik jaio zen. Nola batu zineten? Berak deitu ninduen, azken urteotan umeentzako diskoak ateratzen ari baita. Aurretik, *Oker* (*txakurra da*) izeneko Iñaki Irazurekin sortu zuen, eta, hori baino lehen, Bernardo Atxagarekin *Katuak eta paradisua* atera zuen; lehen-dik elkar ezagutzen genuenez, galdetu zidan ea animatuko ote nintzen bere musikari letrak jartzera, izan ere, nik mundu honetan gehien disfrutatzen dudana da norbaitek melodia bat bidaltzea eta horri letra jartzea. Gogoratzen naiz orduan Muguruzak umeentzako onomatopeiak ondo daudela esan zidala, eta nik hori salbaziorako ohol baten modura hartu nuen; hala, letra guztiak onomatopeiaz bete nituen. Gero aitortu zidan esateagatik esan zidala, kar kar kar.

Ez dira umeentzako podcast asko ekoizten, eta zuek zerbait ezberdina egitera ausartu zarete. Nolakoa izan da emaitza? Bada, ez dakit zer den egia esan, baina niri ez jakite hori gustatzen zait, oso emankorra egiten zaidalako. Diskoari jantzi berri bat jarri genion eta umeentzako podcast bat egin genuen. Podcast musikala edo filosofikoa izan daiteke, baina ez nuke jakingo zehazten zer den. Gure ideia umeentzako pilula txikiak egitea zen, beraien irudimena pizteko ate bat proposatzea, baina ate hori ez da umeentzako bakarrik, edonor sar daiteke, baita helduak ere, eurentzako txisteren bat ere badagoelako.

Umeentzako hainbat poesia-liburu idatzi dituzu. Beraientzako idatzitakoak dira, ala zure barruko umeak idazten ditu? Ez bata ez bestea. Esaten didatenean umeentzako poesia idazten dudala grazia egiten dit nik ez dudalako horrela bizi, nahiz eta horrekin pozik nagoen. Idazten dudanean beti egiten dut irakurriko nauen horrengan pentsatzen



Besteak beste, Astizek Euskadi Literatura Saria jaso zuen 2020an. HOEI TORRES

Dodoa ala Dodoak duda du?

«Aitortu behar dut ez dudala argi zein den podcastaren titulua. EITBk *Dodoa* deitzen du, baina hasierako sintonian *Dodoak* duda du dio. Dudak besterik ez dituen dodo baten inguruko podcast tituluaz zalantzak egotea niri akzidente perfektua iruditzen zait, kar kar kar»

Podcastak ematen duen askatasuna

«Soinuaren edo irratiaaren esparrua oso librea da, mikrofono eta irudimen pixka batekin edozer egin dezakezulako. Horri musikari onak gehitzen badizkiozu maila asko igotzen da»

eta esan nahi dudaren konplexutasunaren arabera. Batzuetan, argi dut irakurlea heldua dela, baina beste batzuetan umeentzako literaturaren baliabideak erabiltzen ditut eta atea eurei ere uzten diet zabalik, baina ez dut buruan nire seme-alaben klasekideentzako idaztea. Buruan lagunak ditut, eta, gehienak helduak izan arren, askorekin haurren literaturarekiko zaletasuna partekatzen dut. Beraz, lengoia horretan komunikatzen gara.

Aita izateak beste ikuspegi bat eman dizu? Umeek asko irakasten digute, baina aita izatea ez da zure umeak entzuteko posiziorik onena; osabek edo lagunek askoz posizioa emankorragoa dute. Guraso zarenean inplikazio emozionala hain handia da kezkek gozamenaren jaten dizula; beraien mundua etengabe zuzentzen zabilta. Beraz, idazten dudanean ez naiz aita, parte hori desaktibatzen dut, ez dut idatzi nahi zuzentzeko, aske izateko esparru bat sortzeko baizik.

Kazetariok apur bat poeta izan beharko ginatekeela uste duzu? Esango nuke esparruaren arabera aukera dagoenean praktikatu beharko litzatekeela, baina ez debalde, kazetaritza munduko ardurarik handienarekin praktikatu behar delako. Figura literario batek ez du balio plazer hutsagatik, baizik eta errealitateari lotuta dagoelako. Egunkarietan gehien haserretzen nauena da kazetariak bere ikuspegi indibidual eta autokonplazientea jartzen duenean irakurlearen gainetik. Kazetaritzan irakurleari errespetua da nagusi, eta horri eman behar zaio zerbitzua. ◀

Zinez diot ***The Many Saints of Newark***

Erraldoi baten oroitzapena

Telesail bat gustukoa dugunean, azken atalak emozioa sorrarazten digu finalera iristeagatik. Ez da beti espero genukeena, baina ez digu oroitzapena zikinduko.

IÑIGO ESTEBAN LEZKANO ►

Telesaila bukatutakoan, nolabaiteko babesgabetasun sentsazioa geratzen zaigu, ez baita erraza serie on batekin konektatzea. Horregatik jasotzen dugu gogotsu spin-off baten edo telesail horrekin zerikusia duen film baten berria, nahiz eta horrek normalean ez digun itzultzen jatorrizkoarekin sentitu genuena. Prekuelak eta sekuelak, kasu batzuetan, arrakasta luzatzea dute helburu nagusia; beste batzuetan, protagonista eta jarraitzaileei omenaldi nostalgiko bat egitea funtsaren gainetik, eta oso gutxitan lortzen dute berez balioa duen zerbait.

The Many Saints of Newark, Alan Taylorrek zuzendua, ideia on batean oinarritzen da, ak-



The Many Saints of Newark

Jatorrizko izenburua:*The Many Saints of Newark***Zuzendaria:**

Alan Taylor

Gidoilariak:

David Chase eta Lawrence Konner

Antzezleak:

Alessandro Nivola, Jon Bernthal, Vera Farmiga eta Corey Stoll.

Iraupena: 120 min

tore egokiak aukeratzen ditu eta nahi zuen giroa lortzen du, Tonyren hasierak kontatzeko, keinu berezi eta polit bat landuz. Hala ere, horrenbeste faktore barneratzen saiatzean, filma apur bat iluntzen da.

Itxiera gisa eta azken agurra bezala lortzen du helburu nagusia, baina logikoa den bezala, ez da *The Sopranos* seriera hurbiltzen. Eraitza behin ikusita erraza da akatsak ateratzea, baina aipagarri den diferentziarik handiena, maisulanek duten xarma berezi hori, bakarrik seriearekin sentitu genuela baieztatu daiteke.

Ez da posible desagertu edo amaitu dena guztiz berpiztea, ez pantailan ezta errealtatean ere, eta, asko saiatu arren, ez da inoiz berdina izango. Kasu honetan, argi dago produktu batetik bestera dagoen distantzia, eta horrek historiako serierik onenetakoa are gehiago balioesten du, bere oroitzapena nolabait indartuz; azken finean, hori da protagonista eztaba daezinari egin dakiokkeen omenaldirik onena. ◀

Irakurrian ***Neure Jugoslavia***

Jugoslaviari hurbilpen pertsonal bat

Jugoslaviako esperientzia sozialista autogestionarioari begirada pertsonal bat eta Jugonostalgikoentzako bidaia gida «berezia».

KOLDO TELLITU ►

Bi zati handi dituen liburua da honakoa; lehenengoan, egileak Jugoslaviako esperientzia autogestionario sozialistaren hainbat eremu errepasatzen ditu, hala nola kooperatibismoa, hezkuntza-sistema, autodeterminazio-eskubidea, Jugoslaviako gerrak, saskibaloia, Jugoslaviako New Wave, Stalin eta Titoren arteko zisma. Egileak, alderdi horiei buruzko bere bizi esperientziatik abiatuta, bere funtsezko elementuetan sakontzen du, gizarte eta politika ikuspegitik, kasu batzuetan, eta kultura edo kirol ikuspegitik, besteetan. Horietako batzuetan, Jugoslaviako esperientzia Euskal Herrian gertatutakoarekin lotzen du, bereziki esperientzia kooperatiboari, hezkuntza ere-



Nure Jugoslavia

Egilea:

Koldo Tellitu

Argitaletxea:

Autoedizioa

Urtea:

2022

Orrialde kopurua:

256

Jatorrizko hizkuntza:

Euskara/gaztelera

muari eta nola ez, autodeterminazio eskubideari dagokienez.

Liburuaren bigarren zatian jugonostalgikoentzako bidaia gida moduko bat proposatzen da. Bertan, egileak Jugoslaviara egin dako bidaiak jasotzen ditu eta bertako leku esanguratsu askoren errepasoa egiten du. Hala ere, ez da lekuak deskribatzera mugatzen; izan ere, eraikinen, museoen, monumentuen irakurketa sozio politikoa gehitzen du beti.

Jugoslavia bisitatzen duen edonorentzat leku magikoak igarotzen dira liburutik, Bled lakua, Belgradeko Kalemegdan parkea, Dubrovniketako hiri zaharra, Kotorreko badia, Splitetako jauregia edo Mostarreko zubi zaharra, baina, batez ere, arreta berezia egiten die denboran zehar Jugoslavia sozialista eta partisanora eramaten zaituzten leku horiei: Belgradeko Tito mausoleoari, Skopjeko posta bulegoari, Neretvako bataillaren museoari, Mostarreko hilerri partianoari eta Novi Beograd, utopia urbanistiko sozialista baten adibiderik onena. ◀



Ebaki

Martxoan sartu gara; **epailean**, alegia. Badirudi nolabaiteko adostasuna dagoela etnografoen eta hizkuntzalarien artean epail izena sasoi honetan tsu egin ohi ziren inausketa eta ebaketekin erlazionatzeko. Marti ere erabiltzen dugu Euskal Herriaren mendebaldean hil bera izendatzeko. Marti izenak *Martius* erromatar izenarekin ei du zerikusia. Erromatarren egutegi zaharrean martxoa izan zen lehenbiziko hila, eta orduantxe abiatzen ziren militarren kanpainak. Marte gerraren jainkoa zen erromatarrentzat. Bizkaierazko martitzen (astearte) berbak ere egiten dio erreferentzia jainko horri.

Baina gaur **ebaki** aditzaz hitz egitea **erabaki** dut. Hainbat aldaera ditu han-hemengo euskalki eta azpieuskalkietan: *ebagi*, *epaki*, *ebai*, *epai*, *baki*... Oihenart historialari eta olerkari zuberotarraren atzotitz bildumako 179. esalege ederrean ebaki aditzaren adizki trinko bat ere ageri da: *Ganibet ber batek debaka ogia eta erhia* (aizto berberak ebakitzen ditu ogia eta hatza/atzamarra).

Gaur egun barra-barra darabilgu ebaki aditza, hainbat adieratan, gainera. Adibidez, arandegian gaudela, kartak eho (nahasi) eta **ebaki** ditzakegu, **ebaki** bat hartu, edo jakiren bati **ebakortza** ezarri aurretik. Ondoren, **haizepaiten** joan gaitezke, gerra garaiko **lubakiak** ikustera; eta horretan gabiltzala **ebakiren** bat egiten badugu, lasai: **ebaki-belarra** ipini eta aurrera! (hobe dugu horretara sendatzea, ezpabere gero **ebakuntza** egin behar...). **Bihotza** ere ebaki daiteke (eta ez nabil harakintzaz), *Bereterretxen khantoria* inarroslean bezala: «Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza».

Eta moztu aditza? Galdetuko du bat edo batek. Antzeko esanahia dute aditz biek gaur egun, baina bakoitzak bere bidea egin du. Esaterako, ilea mozten dugu (sarritan motz-motz ebaki ere); batzuen aurrean moztu egiten gara; txakur bihurriak kate motzean lotzen ditugu; eta gure eskualdean, kasurako, 'motza' erabiltzen dugu itsusi, zatar edo ezaina dena kalifikatzeko (badaezpada hitz hori ahapeka **ebaki**, ez dakit-eta gaur egun politikoki zuzena ote den).

Baina oraingoz, asko da berbarik. Luze edo motz lotu naizen, zeuok **epaitu**! Eta luze baderitzozue, egizue kopla zaharreko gona gorriarekin lege: «Aita gureak amari / gona gorrie ekarri / luze dala, labur dala / garri-garritik **ebagi**». ◀



Berba azoka

Epail

Martxoa, martia.

Ebaki

Moztu.

Erabaki

Ebatzi, deliberatu (ebaki eragin).

Debaka

Ebakitzen du/ditu.

Ebaki

Hemen, kartak moztu.

Ebaki

Hemen, kafea esne apur batekin.

Ebakortz

Ahoaren aurrealdeko hortz ebakitzaila.

Haizepaitu

Paseatu (haize ebaki).

Lubaki

Trintxera, lezoi, lubeta (lur ebaki).

Ebaki

Hemen, ebakiz egindako zauria.

Ebaki-belar

Ebakiak sendatzeko erabiltzen zen belarra (*Calendula officinalis*).

Ebakuntza

Operazio kirurgikoa.

Bihotza ebaki

Hunkitu.

Ebaki

Hemen, ahoskatu, oguzi.

Epaitu

Juzgatu, jujatu.

Ebagi

Ebaki mendebaldeko euskaran.

Aitor Arri Errugbi inklusiboko entrenatzailea

«Espetxe barruan dauden pertsonak birgizarteratu nahi ditugu errugbiarekin»

Duela zazpi urtetik, Getxo Rugby talde inklusiboko entrenatzailea da Aitor Arri; orain, beste urrats bat eman, eta errugbia espetxeetara lekualdatu du.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Zertan datza «Errugbia gizarte-erlaldaketa gisa» proiektua? Euren askatasuna murriztuta duten pertsonen inklusioa lortzea bilatzen du proiektuak. Jendea gizartetik isolatzen du espetxeak, bere izaera fisiko-soziala dela eta. Hala, proiektuaren xedea da espetxe barruan dauden pertsonak birgizarteratzea errugbiak dituen baloreen bitartez.

Nola sortu zen egitasmo hau? Aitor Larraona-ekin batera «Errugbi inklusiboa» proiektuan daramat 2016tik, eta argi ikusten dut errugbia bezalako kirol bat oso onuragarria dela desgaitasunen bat duten pertsonentzat. Horregatik, pentsatu nuen kirol hau inklusiorik ez dagoen leku batera lekualdatzea: espetxe batera. Egitasmoa aurrera eramateko Bitar-tesport elkarteagaz harremanetan jarri nin-



Arri Basauriko eta Martuteneko espetxeetan aritzen da errugbia irakasten. HODEI TORRES

Inklusiorantz
«Pentsatu nuen errugbia inklusiorik ez dagoen leku batera lekualdatzea: espetxe batera»

tzen, haien xedea baita giza erlaldakuntza bilatzea kirolaren bitartez.

Zenbatean behin aritzen zarete? Eguaz-ten guztietan entrenatzen dugu, 17:30etik 18:00etara. Espetxeetako saioak Fadura-ko beste edozein entrenamendukoak bezalakoak dira. Alde bakarra da porlanezko patio batean gaudela horma eta burdin-hesiz inguratuak, eta, horregatik, ezin gara lurrera bota. ◀



errigora

errigora.eus

martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Bat egin
Errigora
Balioekin



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

Bete ezazu
despentsa
urte guztirako



Saioa Ortega Europako surf txapelduna

«Emitza honek aurrera jarraitzaera motibatu nau»

Sopelako surflari gazteak Europako surf txapelketa irabazi zuen otsailean Marokon. Horri esker, kontinente zaharra ordezkatzeko du apirilean Australian egingo den 16 urtez azpiko Munduko Txapelketan.

ANDER ZARRAGA ►

Otsailaren 18an eta 19an Taghazouten (Maroko) izan zen Europako Rip Curl Grom Search txapelketa irabazi zuen Saioa Ortega sopeloztarrak. 16 urtez azpiko kategorian gailendu zen 15 urteko gaztea, apirilean Australiako Bells Beachen egingo duten Munduko Txapelketara joateko txartela lortuz. Irabazterakoan, bere poztasuna ezin ezkutatu zegoela aitortu du, «horrek erakutsi dit kapaza naizela emitza handiak lortzeko, eta asko motibatzen nau».

Aurretik, Euskal Herriko Surf Zirkuituan edo Espainiako Junior Open Zirkuituan ere gailentzetik dator, beraz, badaki irabaztea zer den. «Txapelketa guztietan ez nintzen hain ondo aritu, baina lortutako emitza on guztiek aurrera jarraitzaera animatzen naute», dio.

Apirilean, Australian lehiatuko duen finalerako prestatzeko denbora askorik ez duela azaldu du; hala ere, dioenez, «ahalik eta hobere iristeko topera entrenatzen nabil». Ho-



Saioa Ortega Berasaluce Surf Eskolako kidea da. SAIOA ORTEGA

Surflari eredugarriak
«Leticia Canales edo Garazi Sanchez bezalako tokiko surflari ezagunak eredu bezala hartzen ditut; azken finean, haiek ikustea motibazioa ematen dit beraien modukoa izan nahi dudalako»

rretarako, urte osoan zehar prestatzen da, surfean zein entrenamendu fisikoakaz. «Txapelketak baino lehen gehiago zentratzen gara eramango dugun estrategian», nabarmendu du. Horretarako, Jatyr Berasaluce da bere entrenatzailea, eta Evgeny Zootev du prestatzaile fisiko. Normalean, Sopelako Barinatxe hondartzan entrenatzen duela dio, «baina itsasoaren egoeraren arabera mugitu egiten gara».

Horrez gain, gurasoen eta Ander Deuna Ikastolako irakasleen laguntza ere ezinbestekoak dituela dio: «Gurasoek asko laguntzen naute entrenatzera eta txapelketetara nirekin datoze-lako. Horrez gain, irakasleek ere nahiko laguntzen naute, kanpora lehiatzera noanean azterketak atzeratzen dizkidatelako, besteak beste». ◀

hiruka

HARTU BOLADA ONA GUGAZ. EMAIOZU BULTZADA ZURE NEGOZIOARI!

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitez gugaz harremanetan:
944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

AINGARA

BORDATU PERTSONALIZATUAK ZURE GUSTORA...

Irekitze berria!
Martxoaren 9 an inaugurazioa
Ibaiondo, 13 48930 Erromo · GETXO

944 038 953 • www.bordadosaingara.com

M8aren aurrean

ANDRA BARRIAK



Andra Barriak gara, eta Uribe Kostako emakume-elkarteen lanaren ondorioz sortu ginen 2016an. Lan hori 2009tik ari ginen egiten, besteak beste, ahalduntze-tailerrak eta Uribe Kostako Emakumeen Topaketa urtero antolatzen; aurtan, XIV. edizioa egingo dugu.

Emakumeen gaia modan dago, batez ere, hauteskundeak hurbiltzen direnean, eta, normalean, etsai politikoaren aurkako gezi bezala erabiltzen gaituzte. Baina lasai neskak, iraultza guztiek bultzaka egiten dutelako aurrera, bi urratseko jauzia eginez eta bata atzera eginez mamitu arte. Gainera, garaipen bakoitza zailagoa egiten da galdera hau sortzen delako: «Baina zer gehiago nahi dute?».

Gudu-zelaia infinitua da: 14 emakumetik batek jasan du sexu-abusu mota bat munduan, eta Espainiako lanaldi partzialeko lanpostuen % 75 emakumeek betetzen dituzte. Nola azaldu daiteke hori, emakumeak goi-mailako ikasketetan eta prestakuntzan gehiengoa izanik?

Izan gaitzen ausartak aldaketa lortzeko. Emakume estresatuak, ama gaiztoak, galde diezaiozun gure buruari: Zer nahi dugu? Zoriontsuak gara gure bizi-erritmoarekin? Andra Barrietan lanean jarraituko dugu feminismoak hurbileko egunen batean guztiok estal gaitzan.

UKn ere, bizitzak erdigunean

SORGINEN ALABAK



Zerk sostengatzen ditu gure bizitzak? Nolatan eusten zaie sistema honen logikaren baitan haur, gazte, heldu zein nagusien bizitzei? Ikusezinak eta merkantilizatuta dauden zaintza-lanen bitartez, hain zuzen. Zaintza gutxietsia da, eta, horregatik, emakume migratzaile eta langileek betetzen dute instituzioek egiten ez duten lana. Pandemian krisi hau nabarmendu egin zen, dena gelditzean, zaintzen beharra ikusi baitzen. Sistemak ordea, ez du lanpostu horiek duintzeko ezer egiten. Adibide argia dugu Uribe Kostan Romoko nagusien etxearekin.

Mugimendu feministak zaintzen prekarizazioari eta merkantilizazioari aurre egiteko, mobilizazio prozesua abiatu du. Egoera iraultzeko proposamen eta neurri zehatzak nahi ditugu zaintza sistema duina eta publikoa izan dezagun. Guztiok zainduak izateko eta negozioak sektore honetatik kanpo uzteko bermea nahi dugu.

Bizitza duinak izateko, beharrezkoa da zaintzak ondo egituratzea. Horregatik, zaintzen ez gaituen sistemari aurre egingo diogu M8 honetatik aurrera. Lan ildo berriari ekingo diogu, eta hemendik aurrerako borrokara batzea animatzen ditugu herritarrak. Guztion bizitzak zaintzea bermatzeko, bizitzak erdigunean jarri behar ditugulako! Gora borroka feminista!

Horoskopoa



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Ez duzu aldatzeko asmorik? Bada garaia helduago egiten hasteko. Zure onerako da, hobeto sentituko zara.



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Lan egitea, kalera irtetea, lagunakaz geratzea... Dena ere kostatu egiten zaizu, eta erabat nekatuta zaude.



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Idea berriak dituen norbait ezagutuko duzu lanean, eta oso proposamen erakargarria egingo dizu.



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Denbora gehiegi ematen duzu etxe-zuloan sartuta; ondo etorriko zaizu bidaiatxoren bat egitea gauzak beste modu batera ikusteko.



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Ez dakit ohartu zaren, baina zure bikotekidea bakarrik sentitzen da eta berataz ahaztu zarela uste du koitaduak.



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Bihotz onegia edukitzeak kalte handia egingo dizu, baina maite duzun pertsona batek lagunduko zaitu.



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Kontuan eduki gehiegizko ziurtasuna edukitzeak jendeak esaten duena gaitzestera eramanezakeela.



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Zure senari jarraituz, hasiera batean irtenbiderik ez zutela ziruditen egoerei aurre egiteko erraztasun gehiago izango duzu.



Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Zeure buruari gehiegi exijitzen diozu, eta horrek presiopean egotera bultzatzen zaitu. Hartu eza-zu atseden, osasunak eskertuko dizu.



Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Arriskatzeko unea iritsi zaizu. Berria edo ezezaguna denari beti izan diozu beldurra, eta ez duzu pentsatu gabeko pausorik eman.



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Lan kontuetan maitasunezkoetan baino interes handiagoa duzu. Jarrera hori zure alde erabil dezakezu, jende berria ezagutu dezakezulako.



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Aurrezteko unerik egokiena ez izan arren, horretaz pentsatzea komeniko litzaizuke etorkizunari begira, badaezpada ere.

Urteak eta gero, Lope de Vegako eraikinak eraisteari ekin diote

Azken asteotan tentsio momentuak arnastu dira Itzubaltzeta/Romo auzoan. Otsailaren 13an, Aldundiko Azpiegiturak enpresak bidalitako langileak bertaratu ziren Lope de Vega kalera, 12. zenbakiko eraikinak eraisteko lanak abiatzeko asmoz. Izan ere, Getxoko Udalak eta Aldundiak belaunaldien arteko zentroa eraikitzeke asmoa dute bertan; ordea,

eraikin horiek Ibar Nagusien Etxea elkarteak erabiltzen zuten, eta, horregatik, auzoaren zati handi bat eraikinen defentsara batu da. Horren aurrean, Ertzaintzak indarkeria erabili zuen eraisketaren kontra agertu diren herritarren aurka, hiru lagun ere atxilotuz. Eraisketa martxan egon arren, auzokideek euren nahia defendatuko dutela iragarri dute.

Lope de Vegako eraikinaren defentsan



Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA


SOLUZIOAK:



AURREKO
SOLUZIOAK


Irudi engainagarriak

10 txatal hauen artetik erdia (5) irudi nagusitik hartuta dago eta beste erdia ez. Bereiz itzazu.




bbk KARPIN FAUNA
FAUNAREN BABES ZENTROA - CENTRO DE ACOGIDA DE FAUNA

www.bbkkarpinfauna.eus



Aldea dago!

Aurki itzazu bi irudien
artean dauden aldeak;
13 dira guztira.



Eureka! Zientzia Museoa Zientzia eta dibertsioa

8000 m²-ko erakusketa iraunkorra, simulagailuak,
ikuskizunak, Animalia aretoa, LEGO Education tailerrak,
planetarioa...

ORDUTEGIA
11:00 - 20:00

Miramón Parke Teknologikoa
Donostia / San Sebastián |  
☎ 943 012 478 www.eurekamuseoa.eus

 **eureka!**
zientzia museoa 
kutxa FUNDAZIOA

Parte hartuko duzu martxoak 8ko mobilizazioetan?



JULENE ELORRIAGA
ALGORTA

Bai, noski joango naizela. Urtero joaten naiz antolatzen diren ekintza eta manifestazioetara. Feminismoa, niretzako, bizitzeko modu bat da; ez dut ulertzen feminismoaz aparte beste ideologia bat. Horregatik, nire ustez, ezinbestekoa da guztion artean gizarte feminista bat eraikitzea.



VICTOR GAYO
ALGORTA

Ni alde nago emakume guztiek dagozkien eskubideak izan ditzaten, batez ere, soldata berdintasunari dagokionez. Hala ere, ez nago bat ere ados Podemosegaz, euren erruz 700 bortxatzaile daudelako kalean eta egiten ari diren guztia irrigarria delako eta borrokaren erabilera politiko lotsagarria egiten dutelako.



MARI CARMEN FULLAONDO
ALGORTA

Imajinatzen dut baten batera hurbilduko naizela, elurrik ez badago, noski, kar-kar. Urte hauetan ez naiz askotan joan lan egin behar nuelako, hala ere, aurten bai joango naiz. Niretzako, feminismoa eta berdintasuna gauza ezberdinak dira; izan ere, feminismoa berdintasuna lortzeko borroka da.



ALBERTO GONZALEZ
ALGORTA

Niri oso beharrezkoa den aldarrikapena iruditzen zait, gizonen eta emakumeen arteko eskubideak parekatzeko eta arlo guztietan berdintasuna egon dadin, oraindik egiteko asko dagoelako zentzu askotan. Ez naiz mobilizazioetara joaten, baina aldarrikapenak guztiz ados nago.



ANDREA GARCIA
ALGORTA

Bai. Saiatuko naiz goizean Bilbora joaten, eta, gero, arratsaldean, Algortan egingo diren ekintzetara joango naiz. Nik orain bi seme-alaba ditut eta ezin dut bizitza ulertu feminismorik gabe; izan ere, ezin da ukatu feminismoaren helburua dela guztion eskubideak zaintzea eta defendatzea.



JAIME BERNARDEZ
BURGOS

Uste dut eskubide-berdintasunaren alde egiten diren aldarrikapen guztiak direla balizkoak eta garrantzitsuak, bereziki emakumeen eskubideen alde egiten direnak. Horregatik, egun horretan egiten diren ekintzetan parte hartuko dut, borroka hori ikusarazi eta ahal dugun heinean nire babesa emateko.



LOLI DIAZ
ERANDIO

Ez dut urte guztietan parte hartu, baina ahal dudan guztietan joaten naiz mobilizazio eta elkarretartzeetara. Hala ere, uste dut egunero borrokatu beharko litzatekeela emakumeen eskubideen alde, gauza asko daudelako lortzeke, baina, horretarako, egun bat egotea ere ondo dagoela iruditzen zait.



AIDA MIGUEL
ALGORTA

Feminista sentitzen naiz eta borrokaren alde egongo naiz beti. Egia esan, manifestazioek eta jende pila-keta handiek beldur apur bat ematen didate, hedabideetan eta ikusten diren borrokengatik. Hala ere, uste dut oso beharrezkoa den aldarrikapena dela eta horretan jarraitu behar dugula.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Karpin Fauna ezagutu gura?

Karrantza Haranean, naturaren erdian, panterak, katamotzak, oreinak, kanguruak eta guanakoak zelatan daude zure zain. Zentro hori bisitatu gura duzu? Sarrera bikoitzak ditugu zuretzako!



Zozketa honetan parte hartu gura baduzu, martxoak 26a (domeka) baino lehenago bete zure izen-deiturakaz **ZOZKETAK** ataleko formularioa hiruka.eus webgunean.

Zozketa

Igeldo mendian disfruta ezazu!

Aste Santurako planik gabe zabilta? Bada, hurbildu zaitez Donostiara familian eta goza ezazue tokiko atrakzio-parke paregabeaz; sarrera bikoitzak ditugu zure zain!



Zozketa honetan parte hartu gura baduzu, martxoak 26a (domeka) baino lehenago bete zure izen-deiturakaz **ZOZKETAK** ataleko formularioa hiruka.eus webgunean.

Zozketa

Zientziaren munduan murgildu

Inguratzen gaituen errealitatearen nondik norakoez jabetzeko aukera paregabea eskaintzen digu Donostiako Eureka! Zientzia Museoak. Horretan txonbo egiteko sarrerak ditugu zozkagai!



Zozketa honetan parte hartu gura baduzu, martxoak 26a (domeka) baino lehenago bete zure izen-deiturakaz **ZOZKETAK** ataleko formularioa hiruka.eus webgunean.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



KANPOMARTXO

LUTXANA ERANDIO 2023ko

apirilaren 2an, igandea

TUTORIA EZI
ERABILI GERTATU PUBLIKO EDO EBUSAI



10:00

Lutxana Arraun tailerra

11:00

Musika Eskolako Trikitilari
eta panderojoleak

11:30

Puzgarriak

12:00

Euskal dantzak: Uztargi,
Goi-Alde, Trabudu

13:00

Mendibaiarte
abesbatza

13:30

Kantagunea

15:00

Herri Bazkaria

16:00

Umeentzako
erromeria
eta Puzgarriak

16:30

Bertsolariak:
Ane Labaka eta
Kerman Diaz

18:00

Erromeria:
Garilak 26

berbots



ANTOLATZAILEA

BERBOTS
Erandioko
euskaltzaileen
topagunea
www.berbots.eus

LAGUNTZAILEAK

Goi-Alde
Kantagunea
Uztargi
Trabudu
ALBE
Mendibaiarte abesbatza
Lutxana Arraun Elkarteak

Musika Eskolako Trikitilari
eta panderojoleak
Altzagako Guraso Elkarteak
Goikolandako Guraso Elkarteak
Auzokide elkarteak
Jai Batzordeak
...eta beste hainbat.

BABESLEAK



Erandio
HIRI
HEZITZAILEA

E!
Erandio
UDALA
AYUNTAMIENTO